

2025EKO EKAINAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita seia

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

1.- AURREKO AKTAK. 2025-05-29ko aktaren onespena.

Aktaren berri eman ondoren, Eva Alvarez Atanes andreak, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldearen bozeramaileak, adierazi du aktaren hasieran jartzen duela Hasier Agirre ez zela bertaratu, baina bileran parte hartu zuela.

Besterik esateko ezean eta zuzenketa hori eginda, akta aho batez onartu da.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- I. BARNE BERDINTASUN PLANA 2025-2028RAKO ONARTZEA. 2025PEBO0096

Ezagutza eman da 2025-06-19ko Antolakuntza batzordeko ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK:

Beasaingo Udalaren Berdintasunerako I. Barne Planak bi helburu ditu: alde batetik, legezko eskakizunak betetzea, eta, bestetik, erakundeko langileen artean egon daitezkeen genero-desberdintasunak murriztea.

I. Barne Planak 4 urteko iraunaldia izango du: 2025-2028.

Planaren neurri sorta osatzeko, aurretiaz diagnostiko bat gauzatu da; hori izan da abiapuntua. Zentzu horretan, langileei zuzendutako galdetegia udaleko 81 pertsonetatik 39k erantzun dute (%48ek), 23 emakumek (emakumeen %50k), 13 gizonek (gizonen %37ek) eta generoa zehaztu ez zuten 3 norbanakok. Bestetik, bi talde eztabaida gauzatu dira, zeinetan 17 emakumek eta 3 gizonek parte hartu duten.

Lege markoari dagokionez, esparru sendo bat dago, euskal administrazio publikoak (baita Beasaingo Udalak ere, tokiko administrazio gisa) bere jardunean tratu-berdintasuneko printzipioak eta, besteak beste, ikuspegi intersektzionala, aukera-berdintasuna, indarkeria matxistaren prebentzioa, arreta sexu- eta/edo genero identitatea nahiz sexu-joera aske garatzeko eskubidea bermatzeko duen betebeharrari buruzkoa.

Honako arauak osatzen dute Beasaingo Barne Berdintasun Planaren lege markoa:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko.
- Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina.
- Abenduaren 23ko 31/2022 Legea, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 2023ko martxoaren 16ko Ebazpena, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzarena.
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina.
- Martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.
- Otsailaren 28ko 4/2023 Legea.
- Otsailaren 15eko 4/2024 Legea.
- Urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua.

PROPOSAMENA:

Beasaingo Udaleko Negoziazio Batzordeak Berdintasunerako I. Barne Plana garatu du, aurrez aipatutako diagnostikoa oinarri hartuta. Hori dela eta, Antolakuntza Batzordeak Udal Osoko Bilkurari honako proposamena egiten dio:

Lehenengoa: Beasaingo Udalaren Berdintasunerako I. Barne Plana onartzea, bertan adostu diren neurriak indarrean jarri ahal izateko.

Bigarrena: Planak honako estruktura hau izango du:

- I. ARDATZA: Berdintasunarekin konprometitutako estrategia eta antolaketa.
 - a. Ekintza 1.1.1.: Berdintasunerako I. Barne Planaren ezarpen, jarraipena eta ebaluazio sistemak eta egiturak zehaztea.
 - b. Ekintza 1.1.2.: Berdintasunerako I. Barne Planaren eta barne berdintasun politiken inguruko komunikazioa sustatzeko mekanismoak txertatzea.
- II. ARDATZA: Trebakuntza.
 - a. Ekintza 2.1.1.: Berdintasunari buruzko prestakuntza Barne Berdintasunerako Planaren Jarraipen Batzordea eta lanpostu arduradunakosatzen dituzten pertsonentzat.
 - b. Ekintza 2.2.1. Langileei zuzendutako berdintasun gaikuntza eta sentsibilizazioa sustatzeko prestakuntza ekintzakosatzea.
- III. ARDATZA: Zaintzak eta kontziliazio erantzunkidea.
 - a. Ekintza 3.1.1.: Kontziliazioa neurrien gaineko komunikazioa sustatzea.
 - b. Ekintza 3.2.1.: Sektore bereko eta beste erakunde batzuetako jardunbide egokiak identifikatzea.
 - c. Ekintza 3.3.1.: Espazioarekiko malgutasuna eta telelana ezarri.
 - d. Ekintza 3.4.1.: Ordutegi-eta lanaldi malgutasunerako esparrua garatzea, kontziliazio beharretara egokitzea.
- IV. ARDATZA: Lan eremu osasungarria.
 - a. Ekintza 4.1.1.: Sexu-jazarpen eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren ezarpena.
 - b. Ekintza 4.1.2.: Prebentzioan genero ikuspegia txertatzen dela bermatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Nire ustetan azkena aipatu duzun puntua inportantea da besteok jakiteko zein lan egiten den eta zein emaitza jasotzen diren. Berdintasun inguruko neurri guztiak ongi etorriak dira, baina honek berdintasun teknikariari lan gehiago suposatuko dio eta kontuan izanda gaztelekuari ere dedikazioa eman behar diola, zalantza da eginkizun bakoitzarentzat lanaldi erdiarekin nahikoa izango ote den.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Plantilaren lanketa egin zen eta lehentasunen artean teknikari bakarrak burutuko ditu bi lan horiek. Ikusiko dugu zein izango den ibilbidea. Plantila hazteak bere mugak ditu eta lehentasunak jartze horretan teknikari bat dugu eta beharren arabera eta pausoz pauso joango gara, izan ere baliabideak ez dira infinituak eta lehentasunak jarri behar dira.”

Behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez onartu da proposamena.

3.- KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIAREN PROPOSAMENA:

a.- 2024KO EKITALDI EKONOMIKOAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA.
2025EKBO0062

"Gaia: 2024ko Kontu Orokorra: 2024ko Kontuak. 2025erako finantza kontroleko plana. 2024ko Barne kontrolari buruzko urteko laburpen txostena.

AURREKARIAK

1.- 2025eko apirilaren 3an Antolakuntza Batzordea Kontuetarako Batzorde Berezi gisa osaturik egindako bileran, Kontuhartzaileak ondorengoaren berri eman zuen:

- 2024ko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren Kontua osatu dela, ondorengo dokumentuez osatuta: Aurrekontuaren likidazioa, Egoera Balantzea, Ondarearen emaitza ekonomikoaren Kontua, Diruzaintzako gerakina eta indarrean dagoen legeriak eskatutako gainerako Eranskinak.

2.- Aipatutako kontuei buruzko jendaurreko iragarkia 2025eko apirilaren 15ean argitaratu zen G.A.O.ean, eta 15 lanegun egon behar zuen jendaurrean.

Aipatutako epea igaro denez, inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe:

- Udalbatzaren onespenerako jartzen da 2.024 ekitaldiko Kontu Orokorra.

- Udalbatzari Kontu ematea:

- o Alkateak 2023ko ekitaldiari dagokion txostenaren emaitzaren ondorioz egindako ekintza-planaren ekintzen emaitza.*
- o Kontuhartzaileak 2025 ekitaldirako urteko finantza kontroleko planarena, 2024 ekitaldiari dagokion Barne kontrolari buruzko urteko laburpen txostenarena."*

Horrezaz gain Alkateak ondorengo azalpenak eman ditu:

UDALA

1.-Hasierako aurrekontua : 21.796.075,50 €

- **Foru Funttsaren zuhurtziazko aurreikuspena:**
 - o Aldundiaren aurreikuspena: 12.114.011
 - o Aurrekontuan aurreikusia: 11.933.355,94
 - o Aldundiak likidatutakoa: 11.707.275,41

Kreditu aldaketak:

2023tik txertatuta: 5.795.084,64 €.

Kreditu berriak: 2.529.211,36 €

2.- Behin-betiko aurrekontua: 30.120.371,50 €

3.- Gastuen gauzatze maila: % 71,90

4.- Sarrerren gauzatze maila: % 106 (Gerakinaren doikuntza eginda)

5.- Diruzaintzako gerakina (gastu orokorretarako): 23.005.773,90 €

(2025 urtean zehar onartu diren kreditu aldaketekin dagoeneko erabilia: 6.765.674,61)

6.- Bankuetan saldoa: 25.599.003,13 €

7.- Maileguen zor bizia 2024 urte amaieran: 0,00 €

8.- Ondare emaitza: 1.144.368,45 €

9.- 2024an egindako gastu aipagarrienak:

2024an bukatutakoak:

Dolarea parkean komun publikoa: 46.404,77 €
Oriamendi kaleko lokala: 92.090,47 €
Alkartasuna lizeoa frontoi estalkia eta irisg.: 669.435,73 €
Kiroldedia: erabilera anitzeko gela: 221.057,40 €
Hilerria: 4. kalea: 233.760,88 €
Eguzki plaka fotoboltaikoak Loinatz futbol zelaian: 104.675,50 €
Errekarga puntua Gipuzkoa Plazan: 32.844,94 €
Ikus-entzun instalazioa Igartzan (NEXT): 102.933,22 €
Obra lantaldeko ibilgailua: 117.893,81 €
Udaltzaingoaren ibilgailua: 62.888,54 €

2024an hasitako aipagarrienak:

- Beasain-Ormaiztegi bidegorrian LED argiak: 79.250,97 €
- San Inazio-Esteban Lasa birgaitzea: 798.166,40 €
- Garingo saneamendua: 24.999,43 €
- Antzizar district heating: 223.677,39 €

EGONKORTASUN LEGEAREN BETETZEA

Arau fiskalak berraktibatu diren urte honetan, ondorengoak izan dira emaitzak:

Superabita: 1.687.257,81 €

Finantzen Iraunkortasuna edo zor publikoa: % 1,77 (Goiekiren mailegua)

Gastu araua bete da, hain zuzen ere, gastu muga baino txikiagoa izan da 83.996,27 eurotan.

2024KO FINANTZA KONTROLEKO PLANAREN TXOSTENA ETA 2025EKO PLANA

Gipuzkoako Barne Kontrolari buruzko 32/2018 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Kontu Orokorra onartzearekin batera, Osoko Bilkurari jakinarazi behar zaio:

- 2023ko txostenari buruzko Ekintza planaren emaitzak.
- Urteko txostena, 2024ko ekitaldian egindako finantza-kontroleko eta kontu-hartzailetzako jarduketaren emaitza esanguratsuenekin.
- 2025erako aurreikusitako jarduerak jasotzen dituen plana.

Dokumentu hauen edukiaren berri Batzordean eman zen eta ondorengo hilabetetan, txostenean adierazitakoari buruzko egokitzapenak gauzatzeko Ekintza-plana formalizatuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH bildu): “Urteroko tramitea, argazki bat erakusten duena da eta urtero guri gustatzen ez zaizkigun gauzak azaltzen duena: Gerakina erabiltzeko modua, kreditu aldaketen erabilera, etab. Guk ere urteroko irakurketa egiteko aprobeztatzen dugu.”

Alkaea andreak (EAJ-PNV): “Guk ere urtero bezala esango dugu, kreditu aldaketak 2023an bukatu ezin izan ziren proiektuak amaitzek izan direla eta kopuruari buruz esan, 5.800.000 €koa izan dela. Kreditu berriak berriz, hirigintza proiektuei aurre egiteko gauzatu dira. Dakizuen bezala, aurrekontuan proiektuak txertatzen ditugu partida txiki bat irekiz eta gauzatu ahala eta behar den heinean, kredituak asetzen joaten gara.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- KONTU EMATEA:

- 2025. EKITALDIRAKO URTEKO FINANTZA KONTROLEKO PLANA.
2025EKBO0062

Honen berri eman da:

Organo kontuhartzaileak egiten du Beasaingo Udalaren tokiko sektore publikoaren ekonomia eta finantza jardueraren urteko finantza kontrolako plan hau, 2.025 ekitaldian gauzatuko dena.

Bertan, 2025 ekitaldiko finantza-kontrol iraunkorreko jarduketak azaltzen dira, eta hurrengo ekitaldirako plan berririk egin ezean, egungoa 2.026ra luzatutzat joko da.

Ondoko koadroan ikus daiteke zein kontrol mota aplikatu diezaiokeen kontuhartzaileak Udalari:

UDALA ETA MENDEKO ERAKUNDEAK / SECTOR PÚBLICO LOCAL A EFECTOS DE CONTROL INTERNO	EGINKIZUN KONTU- HARTZAILEA / FUNCIÓN INTERVENTO RA	FINANTZA-KONTROLA / CONTROL FINANCIERO			
		KONTROL ETENGABEA / CONTROL PERMANENTE	AUDITORIA PÚBLIKOA		
			KONTUENA	BETETZEARENA	OPERATIBOA
UDALA / AYUNTAMIENTO	X	X			

1. Aplikatu beharreko araudia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundearen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena, III. titulua, Kontrol finantzarioko eginkizuna.

Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Orokorraren 2015eko uztailaren 30eko Ebazpena, finantza kontrol iraunkorra egiteko jarraibideak ematen dituena.

2. Xedeak

Plan hau aplikatuta Beasaingo Udalaren tokiko sektore publikoaren kudeaketaren gaineko kontrol planifikatu bat egin nahi da zeinak, mugatutako aurreko fiskalizazio eta kontuhartzearekin batera, kudeatzaileari baliabide publikoen administrazio gero eta efizienteagoa lortzeko balioko baitu. Horretarako, ekonomia eta finantza kudeaketaren diagnostiko bat behar da, indarrak eta ahultasunak adieraziz eta, behin hautemandakoan, hobetzeko ekintzak proposatzea ahultasun horiek zuzendu edo indarrak sendotzeko.

Emandako diru-laguntzei dagokienez, finantza kontrolaren helburu nagusia funtsen aplikazio zuzenaren ikuskapena sendotzea izango da.

Gainera, plan honen aplikazioaren ondorioen balorazioa kontuan hartuko da ondorengo planak egitean.

3. Arriskuak eta lehentasunak

Arriskuak dira kontrolpean jarritako kudeaketan hautemandako gertakariak edo gorabeherak, aplikatu beharreko araudia ez betetzea, finantza informazioaren fidagarritasunik eza, aktiboen babes desegokia edo kudeaketako eraginkortasun eta efizientziarik eza ekar ditzaketenak.

Arriskuen mapa zehazteko kontuhartzailetak sektore publikoaz duen ezagutzaz gain, aurrez igorritako ondorengo fiskalizazio osoari buruzko txostenak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak emandako txostenak eta antzeko erakundeen azterketa.

Hala:

3.1 Arriskuak erakundearen egituraren eta jardueraren.

1.- Baliabide publikoen kudeaketa desegokia, jardunbide okerren ondorioz (Multen kudeaketaren finantza-kontrola). (E1)

3.2 Arriskuak prozeduretan eta kontrolean

1.- Baliabide publikoen kudeaketa desegokia, jardunbide okerren ondorioz (Finantza- eta eraginkortasun-kontrola kontratazioan) (C1).

2.- Baliabide publikoak behar bezala ez kudeatzeko arriskua (1 kapituluko gastuen kontrola) (C2).

3.- Emandako dirulaguntzak kobratzeko eskatutako baldintzak ez betetzeko arriskua (C3).

Arriskuaren garrantziaren ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboak erabakiko du lehentasunen ordena, finantza kontrola gauzatzeko dauden baliabideak kontuan hartuz.

3.3 Arriskua baloratzeko irizpideak:

1.-Arrisku-faktoretzat jotzen den gertakariak edo inguruabarrak ekar ditzakeen ondorioen larritasuna. Hala:

a) Larritasun oso handia, GMA 25 puntu: arriskuak aplikatu beharreko araudia ez betetzea ekar badezake, finantza informazioaren fidagarritasunik eza, aktiboen babes desegokia edo eraginkortasun eta efizientziarik eza kudeaketan.

b) Larritasun handia GA, 20 puntu: arriskuak egoera hauetatik hiru sor baditzake: aplikatu beharreko araudia ez betetzea, finantza informazioaren fidagarritasunik eza, aktiboen babes desegokia edo eraginkortasun edo efizientziarik eza kudeaketan.

c) Larritasun ertaina, GM 15 puntu: arriskuak egoera hauetatik bi sor baditzake: aplikatu beharreko araudia ez betetzea, finantza informazioaren fidagarritasunik eza, aktiboen babes desegokia edo eraginkortasun edo efizientziarik eza kudeaketan.

d) Larritasun txikia, GB 5 puntu; larritasun oso txikia, GMB 0 puntu: arriskuak egoera hauetako bat sor badezake: aplikatu beharreko araudia ez betetzea, finantza informazioaren fidagarritasunik eza, aktiboen babes desegokia edo eraginkortasun edo efizientziarik eza kudeaketan.

2.-Arrisku-faktoretzat jotzen den gertaera edo inguruabarrak ekar ditzakeen ondorioak gertatzeko probabilitatea. Hala:

a) Probabilitate oso handia, PMA 25 puntu: sistematikoki errepikatzen bada

b) Probabilitate handia, PA 20 puntu: maiz errepikatzen bada

c) Probabilitate ertaina, PM 15 puntu: noizean behin errepikatzen bada

d) Probabilitate txikia, PB 5 puntu: oso gutxitan errepikatzen bada

e) Probabilitate oso txikia, PMB puntu 1: aurrekaririk jaso ez bada

3.- Barne kontrolaren eraginkortasuna. Hala:

a) Ez dago kontrolik: 0 puntu

- b) Kontrola egin izanaren frogak daude: -5 puntu
- c) Kontrola egin eta haren probak egitearen ebidentziak daude: -15 puntu
- d) Kontrola automatizatuta dago: -25 puntu.
- e) Kontrola automatizatuta dago eta auditatzen da: -35 puntu

Dauden baliabideak: Udal Kontu-hartzailea.

Finantza kontroleko jarduketak hautatzeko orduan lehentasunak zehaztuko dituen eskala hau izango da, aipatutako faktoreak baloratu ondoren lortutako puntuazioa kontuan hartuz:

- a) Lehentasun oso handia: 34 puntu baino gehiago
- b) Lehentasun handia: 24 puntu baino gehiago 34 punturaino
- c) Lehentasun ertaina: 14 puntu baino gehiago 24 punturaino
- d) Lehentasun txikia: gainerakoa.

4 Finantza kontrol iraunkorra

4.1 Xedea

Haren xedea tokiko sektore publikoaren ekonomia eta finantza jarduerak ordenamendu juridikoa eta finantza kudeaketa onaren printzipio orokorrak betetzen dituela egiaztatzea da, azken xedea kudeaketa ekonomia, finantza, ondare, aurrekontu, kontabilitate, antolakuntza eta prozeduraren alderdian hobetzea izanik. Bietan sartuko da eraginkortasunaren kontrola. Haren bidez, hauek zein mailatan betetzen diren egiaztatuko da: programatutako helburuak, zerbitzuen kostua eta errendimendua eraginkortasun, efizientzia, aurrekontu-egonkortasuna eta tokiko baliabide publikoen erabilerako finantza jasagarritasun printzipioen arabera.

4.2 Eremu subjektiboa

Etengabeko kontrol finantzarioa Udalaren gainean egingo da.

4.3 Baliabideak:

Azken urteotan araudi ugari onartu da, Udal Kontu-hartzailetzari esleitutako lanak, horien zailtasun teknikoa eta erantzukizun maila nabarmen areagotzen dituen (Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa; HAP/2015/2012 Agindua, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzen dituen; 27/2013 Legea, Toki Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa; ED. 424/2017, tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena;...). Hala, 424/2017 Errege Dekretuaren 4.3 artikulua ezartzen du bitarteko egokiak eta nahikoak eman behar zaizkiola organo kontuhartzaileari. Kontuhartzailetzan eskura dauden baliabideak ez dira aldatu funtzio- eta zeregin-gehikuntzaren arabera, eta, beraz, egoera horrek finantza-kontrol iraunkorraren irismena mugatzen du, bai aurreikuspenari bai gauzatzeari dagokienez. Kontrol hori sailaren beraren jardueraren bilakaeraren eta eskura dauden baliabideen erabileraren arabera egokituko da.

4.4 Jarduketak

Lehenengoa: Ordenamendu juridikoan organo kontu-hartzaileari egotzitako kontrol jarduketak, hala nola:

- a) Aurrekontu proiektuen eta haiek aldatzeko espedienteen txostena.
- b) Luzatu gabeko sarreraren, finantza-karga handiagoen, ordainsarien gehikuntzaren, konpromiso kredituak sartzearen zein euren izaera ekonomikoagatik euren zuzkidurak handitzeko eskatzen

- duten bestelako gastuen ondorioz aurrekontuaren luzapenean egindako doikuntzei buruzko txostena.
- c) *Finantza jasangarritasuna zerbitzu publikoak TAOAren 85. artikuluan xedatutako baldintzetan zuzenean kudeatzeko moduak erabiltzeari dagokionez baloratzeko txostena.*
 - d) *Herri-ekimena erabilia udal eskumeneko arloetako araudiei buruzko erabaki edo jarduketa edo proiektu proposamenei buruzko txostena, ekimenak udalaren eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrei eragiten dienean.*
 - e) *Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako gastuen finantza jasangarritasunari eta norberarenak ez beste eskumen berriak eta eskuordetuak erabiltzeari buruzko txostena.*
 - f) *Berankortasunaren arloko araudiaren betetzea ebaluatzeko urteko txostena.*
 - g) *Hiruhileko txostena fakturen zerrendarekin, zeinei dagokienez idatzi zirenetik hiru hilabete baino gehiago igaro eta organo eskudunek betebeharraren onarpena egin ez baitute.*
 - h) *Konpromiso kredituen bolumen berri bati aurre egiteko finantza baliabideak nahikoa izateari buruzko txostena.*
 - i) *Txostena kreditu eragiketak itundu edo aldatu aurretik egitea.*
 - j) *Aurrekontuaren likidazioa onartu aurreko txostena egitea.*
 - k) *Lehendakaritzak, zinegotzien herenak edo legez gehiengo berezia behar duten gaietan ekonomia-, finantza- edo aurrekontu-arloan eskatu dizkion txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea; halaber, zerbitzu berriak ezartzea bidezkoa den edo daudenak aldatzea egokia den irizpena ematea, proposamen bakoitzaren ekonomia- eta finantza-eragina eta aurrekontu-egonkortasuna ebaluatzeko.*
 - l) *Ekonomia eta finantzen eta aurrekontuaren arloko txostenak eta ziurtagiriak egitea eta berariazko araudiak ezarritako organoei bidaltzea.*
 - m) *Kontratazio-mahietara, informazio-batzordeetara eta gobernu-organoetara joateari lotutako jarduerak.*
 - n) *Ondasunak doan lagatzeko espedienteetan udal aurrekontuaren kargura likidatzeko dauden zorrak egoteari buruzko txostena.*
 - o) *Udalbatzan eztabaidatu beharreko akordioak, ordenantzak eta erregelamenduak egiteko izapideak egitea erabakitzen diren ekimenei buruzko txostena, halakorik egonez gero. (ETEL 78.3).*
 - p) *Lehendakariaren proposamenari buruzko txostena, toki entitateko osoko bilkurak aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea aplikatzea erabakitzeke.*
 - q) *Kreditu nahikoa dagoela dioen ziurtagiria ematea.*
 - r) *Instrukzio honen, foru-organoen eskudunak ematen dituen gainerako arau orokorren eta Udalbatzaren Osoko Bilkurak ematen dituen arauen arabera, finantza-kontabilitatea eta toki-erakundearen aurrekontuaren gauzatzea eramatea eta garatzea.*
 - s) *Toki-entitatearen kontu orokorra osatzea.*
 - t) *Onartu ohi diren irizpideak kontuan hartuta, Udalbatzak erabakitako kontuen egoera-orri integratu eta bateratuak osatzea.*
 - u) *Toki-entitatearen kontabilitate-eginkizunak edo -jarduerak koordinatzea, eta, horretarako, jarraibide tekniko egokiak ematea eta haien aplikazioa ikuskatzea.*
 - v) *Kontabilitate-dokumentazio eta -informazio guztia artxibatzeko eta gordetzeko sistema egokia antolatzea, kontrol-organoen eskura jartzeko behar diren epeen barruan haiek eskatzen dituzten kontabilitateko informazio-sistemako erregistroak, kontuak, dokumentuak eta frogagiriak.*
 - w) *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 64. artikulua aipatu eta Jarraibide honetako IV. tituluko III. kapituluaren garatutako informazioa prestatzea, eta Udalbatzari igortzea toki-entitatearen buruaren bidez, erabakitako epeen barruan eta aldizkakotasunarekin.*
 - x) *Urteko aurrekontuko gastuen eta sarreren gauzatze-egoerak (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Lurralde Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6.3.d)*

artikuluan aipatuak) egitea eta aipatutako informazioaren egitura zehaztea, erakundearen osoko bilkurak erabakitakoaren arabera.

- y) Fakturen kontabilitateko erregistroa kudeatzea eta haren jarraipena egitea abenduaren 29ko 3/2004 Legearen (zeinaren bidez ezartzen baitira merkataritza-eragiketen berankortasunari aurre egiteko neurriak) eta abenduaren 27ko 25/2013 Legearen (zeinaren bidez faktura elektronikoa sustatu eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzen baita) helburuak betetzeko, horretarako araudiak ezarritako txostenak emanez.

Bigarrena: Plan honetan lortu nahi diren helburuekin, ekitaldi bakoitzerako ezarritako lehentasunekin eta 4.3 puntuan aipatzen diren baliabide erabilgarriak etengabeko kontrolerako izatearekin bat datorren arriskuen analisi batean oinarrituta plan honetan hautatutakoak.

4.5 Plan honetan hautatutako jarduketaren xehetasuna

Hautemandako arriskuek eta arestian definitutako ereduaren arabeko lehentasun ordenaren ezarpenak jarduketaren xehetasun hau osatzen dute:

A.- UDAL AURREKONTU OROKORRAREN GASTU EGOERARI DAGOKIONEZ

A.1.- KONTROL IRAUNKORRA KONTRATAZIO ALORREAN

A.1.1 Laginketa bidez egiaztatzea Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren 10. artikulua, kontratu txikien kudeaketari buruzkoa.

Aurrekontua gauzatzeko udal-arauaren 10. artikulua ezartzen du 3 eskaintza eskatu behar direla 5.000,00 euro edo gehiagoko zenbatekoa (BEZik gabe) duten kontratu txikiagoetan, zerbitzu- edo hornidura-kontratuetan, eta 20.000,00 euro (BEZik gabe) obra-kontratuetan. Betetzen dela egiaztatzea.

A.1.2.- Kontratu txikien finantza eta eraginkortasun kontrola:

- Kontratazio-organoak, esleipena egin aurretik, gastua benetan baimendu eta erabili duela egiaztatzea, laginketa bidez.

- Kontratu txikiaren bidea behar bezala erabiltzen dela egiaztatzea. Zehazki, kontratu txikien bidez zerbitzuak jarraian ematen dituzten hornitzaileen urteko fakturazioa aztertuko da. Egiaztapen horiek egiteko, 347 ereduan jasotako informazioan laginketa-teknikak aplikatuko dira.

A.2.- KONTROL IRAUNKORRA DIRULAGUNTZEN ALORREAN

A.2.1.- Pertsona edo erakunde onuradunek 2025ean jasotako dirulaguntzak egoki eta zuzen lortu dituela egiaztatzea

Laginketa bidez berrikusiko da aurkeztutako dokumentazioa bat datorrela oinarrietan, hitzarmenetan eta/edo emakida-ebazpenetan eskatutakoarekin.

A.3 ETENGABEKO KONTROLA LANGILE-GASTUEN ARLOAN

Aurrekontuaren 1. kapituluko gastuen etengabeko kontrola ondoren zerrendatzen diren jardueretan oinarrituko da, eta esku-hartze arloko baliabideen arabera egingo da:

A.3.1. Pertsonal kontratazio berrien espedienteak

Laginketa bidez, espediente horien izapidetzea egokia dela egiaztatuko da

B) UDAL AURREKONTU OROKORREKO DIRU-SARREREN EGOERARI DAGOKIONEZ

B.1 DIRU-SARRERAK EGIAZTATZEA

B.1.1.- Isunen kudeaketaren finantza-kontrola.

Isunak kudeatzeko zerbitzu-kontratua formalizatzearen ondorioz, isunak izapidetzean eta kobratzean funtzionamendua eta eraginkortasuna egiaztatuko dira.

4.6 Finantza kontrol iraunkorraren txostena

BKFDren 35. artikuluan (Finantza kontrolaren txostenak) xedatutakoaren arabera, kontrol iraunkorreko jarduketan emaitza idatzizko txostenetan dokumentatuko da, eta haietan, era argi, objektibo eta haztatuan, egiaztatutako egitateak, ateratako ondorioak eta, halakorik balego, kontrolatutako jarduketei buruzko gomendioak adieraziko dira. Halaber, berehalako jarduketa zuzentzaile baten bidez zuzendu behar diren hutsuneak adieraziko dira, eta hurrengo kontrol jarduketetan haiek egin direla egiaztatu beharko da.

Kontuhartzailtzako organoak finantza-kontrolako behin betiko txostenak bidaliko dizkie kontrolatutako jarduera ekonomiko-finantzarioa zuzenean kudeatzen duenari eta toki-erakundeko Lehendakariari.

Kontuhartzailtzako organoak barne-kontrolaren emaitzen laburpen-txostena egin beharko du urtero, kontu orokorra onartzen denean, eta Osoko Bilkurara bidaliko du Lehendakariaren bidez.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:"

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Vistos los informes y los incumplimientos que se dan, de cara al futuro deberíamos ser conscientes de que hay que poner medidas para que esos incumplimientos se reduzcan."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Batzonean honetan luze hitz egin genuen. Edozein aldaketak denbora behar du txertatzeko eta baita ere insistitu egin behar da. Hasteko, teknikariek beraien ohiturak dituzte eta horiek aldatzea kosta egiten da. Denon erantzukizuna da horretan begiak jartzea eta jarraipen zorrotzagoak egitea. 2022-2023 urteetan hobekuntza xumea izan da eta gure helburua da hurrengo urteetan, jarraipen estuaren bitartez datuak hobetzen joatea."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Denon ardura da, baina batez ere kontuhartzaile eta langileena. Esan dena: Eguneroko lana eta behin eta berriz esatea."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bai, horretan indarra jarri behar dela eta dago zalantzarik."

- 2024 EKITALDIARI DAGOKION BARNE KONTROLARI BURUZKO URTEKO LABURPEN TXOSTENA. 2025EKBO0062

Honen berri eman da:

1.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (130., 133. eta 136. artikulua).

- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa (IV. titulua, kontu-hartzailtzako kontrola, 65-74 artikulua).

- 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundearen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

- Aurrekontua betearazteko udal-araua (12. artikulua).

2. AURRETIAZKO OHARRAK

Kontu Orokorra onartzearekin batera, nahitaezkoa da Udalbatzari aurkeztea, Lehendakariaren bidez, 2024ko ekitaldian egindako finantza-kontrolako eta kontuhartzailtzako jardueretatik eratorritako emaitzarik esanguratsuenak jasotzen dituen urteko txostena.

Dokumentu honetan aipatutako txostenak kudeaketa organoei bidali zaizkie Barne Kontroleko Foru Dekretuan araututako izapidetzearen arabera.

Tokiko sektore publikoko erakundeek kontabilitate informazioa eta kontuen auditoretza txostenak egoitza elektronikoko korporatiboetan argitaratu beharko dira.

3. ETENGABEKO KONTROLETIK ERATORRITAKO EMAITZARIK ESANGURATSUENAK.

3.1. GAI OROKORRAK

2024ko ekainaren 6an, Osoko Bilkurari 2024 Finantza Kontrolerako Planaren berri eman zitzaion.

Plan hori aplikatuz lortu nahi zen helburua, arriskuaren ebaluazioan eta analisisian oinarritua, epe labur eta ertaineko kudeaketaren gaineko kontrol planifikatua egitea zen, baliabide publikoak modu eraginkorragoan erabiltzeko eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren diagnostikoa egiteko, ahultasunak, desbideratzeak edo gabeziak identifikatuz eta horiek zuzentzeko hobekuntza-ekintzak proposatuz eta, horrela, kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta gardentasuna optimizatuz.

Plan horretako jarduerak, udalaren etengabeko kontrolaren modalitatean, honako hauek dira:

3.2. KONTRATAZIOAREN, DIRU-LAGUNTZEN, LANGILE-GASTUEN ETA DIRU-SARREREN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

3.2.1.- KONTRATAZIOAREN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

3.2.1.1.- Lizitazio publikoaren bidez egindako kontratuen finantza- eta eraginkortasun-kontrola. Laginketa bidez egiaztatzea ondorengo alderdiak: Kontratuaren helburuen betetze-maila, kontratuaren kostua, kontratuan jasotako hobekuntzak betetzea.

2024an indarrean egondako kontratuen artetik ondorengo lagina hartu da: Usurbe antzokiaren emakida kontratua (2022BOCU0003), Antzizar kiroldegia kudeaketa (2022KIBO0032), Errentamenduaren bidez Beasaingo udalerrirako sarbideak kontrolatzeko sei (6) kamera sistema hornitzeko, instalatzeko eta mantentzeko kontratua (2022UDBO0029), Gipuzkoa plazan ibilgailu elektrikoak kargatzeko 2 puntuen hornikuntza eta instalazioa (2023PROB0015), Kale garbiketa zerbitzua (2019ZEBO0019) eta Parkeak, lorategiak, berdeguneak eta zuhaitzak zaintzeko zerbitzua (2021ZEBO0046).

USURBE ANTZOKIAREN EMAKIDA KONTRATUA (2022BOCU0003):

- Kontratuaren xedea bete da, hau da, Usurbe Antzokia eta Erakusketa/Esperimentazio Aretoa kudeatu eta ustiatu dira. Hala ere, behar bezala bete dela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunaren txostenean jaso beharko da, jarritako fidantza itzuli aurretik.

- Orain arte ordaindutako prezioa (kontratua 2025eko uztailaren 18an amaitzen da) bat dator kontratuan xedatutakoarekin.

- Adjudikaziodunak bete du zinemako atearen inguruan sarrerak saltzeko gailu bat instalatzeko hobekuntza, baita haren kudeaketa eta mantentze-lanak ere (Teknikariaren txostenak jasotzen du egiaztapena espedientean).

- Esleipendunak EZ du aurkeztu egindako kudeaketa jasotzen duten jardueren memoria kuantifikatua, kostuak banakatuta, eta, besteak beste, mantenimendukoak, pleguaren arabera sei hilean behin aurkeztu behar zirenak.

- Esleipendunak hiru hilean behin sartu ditu 2022ko eta 2023ko ekitaldietan eta sei hilean behin 2024ko ekitaldian Udalak antolatutako jarduketengatik jasotako diru-sarrerak, baina EZ ditu diru-sarrerak hilero egin, baldintza-agirian aurreikusten zen bezala.

- Esleipendunak EZ zuen aurkeztu, kontratua sinatu eta gehienez ere hilabeteko epean, instalazioan zeuden baliabide material guztien inbentario xehatua.

- Esleipendunak EZ ditu aurkeztu ekitaldi bakoitza amaitu eta hurrengo lauhilekoan aurkeztu behar zituen kontu ikuskatuak, administrazio-pleguaren 5.1 klausulan aurreikusitakoarekin bat etorritik, ustiapen-kontuan emaitza positiboa egon daitekeela egiaztatzeko, Udalari horren % 30 kobratzeko eskubidea sortuko bailioke.

Honen inguruan, espedientean jasota daude: esleipendunari 2024an egindako errekerimendua, erantzunik izan ez zuena, eta 2025eko maiatzaren 6an Alkateak emandako ebazpena ordainketak etenda utziz esleipendunak kontu ikuskatuak aurkezten ez dituen bitartean.

ANTZIZAR KIROLDEGIAREN KUDEAKETA ZERBITZUA (2022KIBO0032)

- Kontratuaren xedea bete da, Antzizar kiroldegia kudeatzeko zerbitzua eman baita. Hala ere, behar bezala bete dela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunaren txostenean jaso beharko da, jarritako fidantza itzuli aurretik.

- Hilero ordaindutako prezioa bat dator kontratuan xedatutakoarekin (1.415.143,40 €/urtean).

- Azken faktura baliozkotzeko, agiri teknikoaren 3.1 klausulak honako baldintza hau ezartzen zuen: "Kontratua amaitzean, dagokion fakturarekin batera, urteko aldiari dagokion diru-sarreraren txosten ikuskatua aurkeztuko zaio kontratuaren arduradunari, eta ezinbesteko baldintza izango da azken fakturari dagokion ordainketa baliozkotu ahal izateko."

Azken faktura balioztatu eta ondorioz, ordainduta dago, baina espedientean ez dago aipatutako diru-sarreraren txosten auditaturik. Maiatzaren 23an kontratuaren arduradunak esleipendunari eskatu dio aurkez dezan ahalik eta azkarren.

ERRENTAMENDUAREN BIDEZ BEASAINGO UDALERRIRAKO SARBIDEAK KONTROLATZEKO SEI (6) KAMERA SISTEMA HORNITZEKO, INSTALATZEKO ETA MANTENTZEKO KONTRATUA (2022UDBO0029)

- Kontratuaren xedea bete da, 6 kamera sistema alokairuan instalatu dira eta mantentzen ari dira, esleipendunak egindako eskaintzaren arabera eta baldintza plegu teknikoek eskatutako zehaztasunak betetzen dituzten sistemak eta prozedurak ezarrita eta formakuntza, eskatutako baldintzetan egoki bete da. Hala ere, behar bezala bete dela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunaren txostenean jaso beharko da, jarritako fidantza itzuli aurretik.

- Orain arte ordaindutako prezioa (kontratua 2026ko ekainaren 20an amaitzen da) bat dator kontratuan xedatutakoarekin.

- Udaltzainburuak egiaztatu du eskatutako hobekuntzak gauzatu direla, hala nola:

- Udaltzaingoaren bulegoetan gutxienez 40"ko pantaila jarri da, sarbidea kontrolatzeko instalatutako ebidentzia-kamerak eta dagoeneko ezarrita dauden gainerako kamerak ikusteko.

- Trafikoa zaintzeko kamarak jartzea (hornitu behar diren sei sistemez gain), gutxienez 8 megapixelleko kalitatekoak, udaltzaingoarekin zehaztutako lekuetan.

GIPUZKOA PLAZAN IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO 2 PUNTUEN HORNIKUNTZA ETA INSTALAZIOA (2023PROB0015)

- Kontratuaren xedea bete da, Gipuzkoa plazan ibilgailu elektrikoak kargatzeko 2 puntuak hornituz. Hala ere, behar bezala bete dela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunaren txostenean jaso beharko da, jarritako fidantza itzuli aurretik.

- Esleipen prezioa 36.600,70 eurokoa izan zen eta ordaindutakoa, aldiz, 32.844,94 eurokoa, obra trazaduaren aldaketaren ondorioz, kontratuaren arduradunaren esanetan.

KALE GARBIKETA ZERBITZUA (2019ZEBO0019)

- Bideak garbitzeko zerbitzua eman da, kontratuaren xedea betez. Hala ere, behar bezala bete dela egiaztatzeko, kontratuaren arduradunaren txostenean jaso beharko da, jarritako fidantza itzuli aurretik.

- Ordaindutako prezioa bat dator kontratuan xedatutako prezio finkoarekin (1.169.300,00 € urteko).

- Elurte eta alerta klimatologikoetarako orduen poltsaren jarraipenerako urteroko txostena jasotzen da espedientean.

- Kontratuaren amaierako txostenaren arabera, Udalak egindako erabilpenek poltsaren kopurua gainditzen dute.

- Ibilgailu eta makineriaren inbentarioaren txostenak jasotzen dira, bai hasierakoa eta bai eta ere amaierako egoeraren arabera. Hala ere, kontratuaren amaieran ez dituzte ibilgailuak Udalaren izenera

transferitu (plegu teknikoa 6.2) kontratu berriaren esleipenduna aurreko kontratuaren esleipendun bera izan denez.

PARKEAK, LORATEGIAK, BERDEGUNEAK ETA ZUHAITZAK ZAINTEKO ZERBITZUA (2021ZEBO0046)

- Parkeak, lorategiak, berdeguneak eta zuhaitzak mantentzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko zerbitzua ematen ari da, 2025eko urrian amaitzen den kontratuaren xedea betez, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da.

- Kontratuaren prezioa 3 kontzeptutan ezarri da:

- Urteko prezioa: 354.921,48 €, BEZa barne.

- Material eta lan berezien hornidura: 19.826,67 euro, BEZa barne.

- Hobekuntza-lanen prezio zenbatetsia: 15.000,00 €, BEZa barne.

Pleguak ezartzen du esleipendunak faktura bat bidaliko duela 3 kontzeptuen banakapenarekin, baina faktura indibidualizatuak jasotzen dira, eta horrek zaildu egiten du pleguan xedatutakoa egiaztatzea.

Hala ere, kontratuaren arduradunak kontratuaren prezioak betetzen direla egiaztatzen du, eta zenbatekoak bat datoz aurrekontu-partidaren erregistroekin.

3.2.2.- DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK. ETENGABEKO KONTROLA DIRU-LAGUNTZEN ETA LAGUNTZEN ARLOAN

3.2.2.1.- Gardentasun-betebeharrak betetzen direla egiaztatzea: Dirulaguntzen erregistroa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) eta informazioa gardentasun-atarian.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua arabera, emandako eta ordaindutako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu behar dira.

2024ko ekitaldian emandako dirulaguntzei buruzko kontabilitate-datuak BDNSn daudenekin alderatuta, egiaztatu da oinarri arautzaileen edo hitzarmenen % 85a eta onuradunei benetan ordaindutako zenbatekoen % 45a argitaratu zirela (2025eko apirila).

Datu horiek dira, era berean, gardentasun-atariak islatzen dituenak, atari horretako publikitatea BDNSrako eta udalaren webgunerako esteken bidez egiten baita.

3.2.3.- PERTSONALAREN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK.

3.2.3.1.- Lanpostuen zerrendan (LPZ) funtzionarioek, lan-kontratuko langileek edo behin-behineko langileek betetako lanpostu guztiak agertzen direla egiaztatzea, eta LPZko lanpostu guztietan zein kidego edo eskalatakoak diren adierazten dela egiaztatzea, eta berariazko osagarria edo lanpostu-osagarria zehazten dela egiaztatzea, funtzionarioen edo lan-kontratuko langileen kasuan.

- Lanpostu guztiak onartutako LPZn sartzeari dagokionez, egiaztatu da behin-behineko langileek, funtzionarioek eta lan-kontratuko langileek betetzen dituzten lanpostu guztiak barne hartzen dituela, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua xedatutakoaren arabera.

- Kidegoa edo eskala eta berariazko osagarria zehazteari dagokionez:

a) Behin-behineko langileei dagokienez:

Onartutako lanpostuen zerrendak EZ du jasotzen ez eskatutako hizkuntza-eskakizuna, ez ordainsarien zenbateko osoa (11/2022 Legearen 46.4 artikulua)

b) Funtzionarioei eta lan-kontratuko langileei dagokienez:

Lanpostuen zerrendak, Musika Eskolako eta Euskaltegiko aldi baterako 2 irakasle-lanpostuetan izan ezik, lanpostuari lotutako kidego edo eskala eta berariazko osagarria adierazten ditu bere tarte orokorrean eta dedikazio berezikoan (11/2022 Legearen 46.1.c) eta f) letrak).

Lanpostu-zerrenda, aurrekontuan sartutako eta Antolakuntza eta Giza Baliabideetako buruak sinatutako Langileen Eranskinarekin kontrastatzean, berariazko osagarriari buruzko atalean zenbateko gehigarri bat jasotzen dela egiaztatu da, "Ez disfrutatzeko antzinasuna konpentsatzeko akordioa" izenarekin.

Aurrekariak organo kudeatzaileari eskatu ondoren, honako hau jaso da:

- Udalbatzaren 2006ko ekainaren 29ko erabakia, Udalhitzen aurretik aitortutako baldintza ekonomiko eta sozialak onartzen dituen, Arcepafe 2005erako eta 2006rako osatzeko akordioa barne, besteak beste, honako hau jasotzen zuena: "Aitortutako antzinasuneko 15 urteko aldi bakoitzeko egun baimendu bat jai egingo da. Egundoriek jai hartzeko, hiru urtekoak ordaintzeko erabiltzen diren irizpide berberak erabiliko dira"

- Alkateak, Gobernazio Batzordeko lehendakariak, langileen teknikariak eta enpresa-batzordeak 2007ko irailaren 18an eta azaroaren 20an egindako bileren aktak.

- "Antzinasun-Ordainketa" kontzeptuari buruzko dokumentua, Alkateak eta enpresa batzordeak 2007ko abenduan sinatua, honako hau adierazten duena: "antzinasuneko egun libre hartu ordez, egundorietatik dagokien diru kopurua ordaintzea." "... hemendik aurrera urtero irailera nominan..."

Egiaztapen-jarduketak ondorioztatzen du, indarrean dagoen legediaren arabera:

A) Ez dago "Antzinasun- Ordainketa"rako legezko euskarririk, hain zuzen ere:

A.1.- Antzinasuneko 15 urte bakoitzeko baimen-egun gehigarriak Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, EPOEL) hamalagarren xedapen gehigarrian baino ez dira sartzen, ondorengoa dionean:

"Administrazio publiko bakoitzak gehienez ere lau opor-egun gehigarri ezarri ahal izango ditu, funtzionario publikoek emandako zerbitzu-denboraren arabera."

A.2.- 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Estatuko Aurrekontu Orokorren 11/2020 Legeak 3. paragrafoa gehitu zion EPOELen 50. artikuluari, honako hau xedatuz:

"Funtzionario publikoen urteko oporraldi ordaindua ezin da ordezkatu zenbateko ekonomiko batekin".

B) EPOEren hamalagarren xedapen gehigarrian jasotako opor-egun gehigarriak ezartzea Udalbatzaren eskumena da.

3.2.4.- DIRUSARREREN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK.

3.2.4.1.- Kobratzeke dauden eskubideen finantza-kontrola

2024ko ekitaldian zehar, ezin bilduriko zorrak depuratu eta kobraezintzat jo dira 261.344,13 euroko zenbatekoan.

Udal diruzainak diru-bilketaren saldoak kontabilitate-saldoekin bat datozela egiaztatu du eta lortutako zerrendatik ondorengoa aipatzekoa da:

- 20.854,93 €-ko zenbatekoa (2025eko ekainaren 9an) zor da 2016tik kontratua amaitu arte, Bernedo Enean kafetegiko jarduera garatzeko bagoi bat jartzeko hiri-lurzatia alokatzeagatik.

Gaur egun, jarduera ez da garatzen eta ez dago errentamendu-kontraturik; hala ere, bagoiak lurzatia okupatzen jarraitzen du.

- Bide publikoa mahai eta aulkiekin okupatzeagatik hainbat ekitalditan errepikatzen diren zordunak daudela ikusi da. Diru-bilketatik ezarritako prozedurekin jarraitzen bada ere, informazio hori sail kudeatzaileari helarazten zaio, Ordenantza arautzaileak 14.5 artikuluan xedatutakoa aplika dezan hala iritziz gero. Artikulu horrek ezartzen du lizentzia ukatzeko eta/edo baliogabetzeko aukera dagoela, ordaintzen ez bada.

- Merkatuan espazio publikoa okupatzeagatik hainbat ekitalditan errepikatu diren zordunak daudela ikusi da. Nahiz eta diru-bilketatik ezarritako prozedurekin jarraitu, informazio hori sail kudeatzaileari helarazten zaio, jakinaren gainean egon dadin.

Ondorio hauetarako adierazten da Udalak kaleko salmenta erregulatzeko araudia eduki beharko lukeela.

- Egiatzatu da esnea saltzeko instalazio iraunkorra duen espazio publikoaren okupazioa dagokion emakida administratibo-lizentziarik gabe egiten ari dela, eta, beraz, espazio publikoaren okupazio pribatiboagatik ezer ordaindu gabe.

4. ONDORIOAK

a) Kontratazioa:

Egindako egiaztapenen arabera, ondoriozta daiteke sarritan ez dela sinatutako kontratu administratiboaren jarraipenik egiten lizitazio-prozesua amaitu eta zerbitzua, obra edo eraikuntza abian jarri ondoren.

b) Dirulaguntzak:

Nahiz eta egiaztatu den BDNSra bidaltzen direla sinatutako deialdi eta hitzarmen gehienak, ez da betetzen, era berean, benetan onuradunei egindako ordainketak bidaltzeko betebeharra.

c) Pertsonalaren kudeaketa:

Ez dago oinarri juridikorik

“Antzinatasuna-ordainketa” izendatutakoarentzat eta badago aukera antzinatasunagatik oporrak hartzeko, horretarako eskumena duen organoak (Udalbatza) erabakia harturik.

d) Dirusarreraren kudeaketa:

Udalaren baimenik gabe bide publikoan egiten diren okupazioak erregularizatu behar dira, bai eta baimenei dagozkien ordainketa-betebeharrak betetzen ez dituzten titularrei emandakoak ere.

5. EKINTZA-PLANA

Toki-erakundeko lehendakariak ekintza-plan bat formalizatuko du, laburpen-txostenean adierazitako ahuleziak, akatsak, eta ez-betetzeak konpontzeko hartu beharreko neurriak zehazteko.

Ekintza-plana gehienez ere 3 hilabeteko epean egingo da, laburpen-txostena Osoko Bilkurara bidaltzen denetik zenbatzen hasita, eta honako hauek jasoko ditu: hartutako zuzenketa-neurriak, neurri horiek gauzatzeaz arduratuko den pertsona eta egin beharreko jardueren egutegia.

Lehendakariak Osoko bilkurari jakinaraziko dio barne-kontrola gauzatzean agerian utzitako ahulezien zuzenketaren egoera, eta, horrela, Osoko bilkurak ekonomia- eta finantza-kudeaketa hobetzeko ezarritako neurri zuzentzaileen aldizkako jarraipena egin ahal izango du.

UDAL KONTU-HARTZAILETZAK 2024KO EKITALDIAN FORMULATUTAKO ERAGOZPENEN, FISKALIZAZIORIK EGIN EZ DEN KASUEN ETA DIRU-SARREREN ARLOAN ANTZEMANDAKO ANOMALIA NAGUSIEN AURKAKO DESADOSTASUNAK EBAZTEKO TXOSTENA

- LEHENENGOA: ERREGULAZIO JURIDIKOA:

Abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren (Gipuzkoako tokiko sektore publikoko toki-erakundeen barne-kontrolako araubide juridikoa arautzen duena) 15.6 artikuluan, 2019ko Aurrekontuak Betearazteko Udal Arauaren 12.2 artikuluan eta arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudian ezarritakoaren arabera. Kontu-hartzailetzako organoak Udalbatzari igorriko dizkio egindako eragozpenen aurka toki-erakundeko presidenteak hartutako ebazpen guztien txostena eta diru-sarreraren arloan antzemandako anomalia nagusien laburpena. Txosten horrek fiskalizazio-funtzioaren berezko alderdiei eta zereginei baino ez die erantzungo, fiskalizatzen dituen jarduketaren egokitasun edo komenigarritasun-gaiak barne hartu gabe.

- BIGARRENA: EGINDAKO ERAGOZPENAK ETA HARTUTAKO EBAZPENAK:

2024ko ekitaldian, honako erabaki hauek hartu dira, eragozpenak eta fiskalizaziorik eza ebatziz:

- 2024/07/22ko ebazpena (2024BOBE0010 y 2024BOBE0011): La Salle San José eta Andramendi ikastola ikastetxei dirulaguntzak zuzenean emateari buruzko eragozpenak ebazten ditu, aipatutako dirulaguntzen izaera berezia egiaztatzen ez delako, ezta deialdi publikoa zailtzen duten arrazoiak ere.

- 2024/11/14ko ebazpena (2024ERET0001): "Beasainen elkarbizitza berria lantzen programa eta Beasaingo giza eskubideen urraketen ikerketaren programa" kontzeptuan lege ezarritako prozedura alde batera utzita egindako gastuen fiskalizazioa ez egitea ebazten duena.

- HIRUGARRENA: TXOSTENA BIDALTZEA.

Kontu Orokorra dela eta Osoko Bilkurari jakinarazi ondoren, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinaraziko zaio, indarrean dagoen legeriaren arabera:

- 2023KO EKITALDIARI DAGOKION EKINTZA-PLANAREN EMAITZAK.
2025EKBO0062

"KONTRATAZIOAREN INGURUAN

1.1.- Laginketa bidez egiaztatzea formalizatutako kontratu txikietan bete egin dela Aurrekontua Betearazteko Udal Arauaren 10. artikulua.

2024ko ekitaldian zehar 99 kontratu txiki egin dira 5.000,00 euroko (BEZik gabe) edo handiagoko zerbitzu eta hornidurarako eta 20.000,00 euroko (BEZik gabe) edo handiagoko obra-kontratu. Kontratu horien % 8an 3 eskaintzaren eskaera egiaztatu da, eta % 9an hori betetzeko ezintasuna adierazi da.

Beraz, egindako kontratu txikien % 83an ez da bete Aurrekontua betearazteko udal-arauaren 10. artikulua, egiaztatuz 2023 urtearekin alderatuta, hobekuntza oso txikia izan dela, une hartan ez-betetze-maila % 96koa izan baitzen.

Berriro sartuko da egiaztapen hori 2025eko ekitaldirako finantza-kontrolako planaren barruan.

1.2.- Laginketa bidez egiaztatzea kontratazio-organok kontratu txikiak esleitu aurretik gastua benetan baimendu eta xedatu duela.

2024ko ekitaldian, 394 kontratu txiki egin dira guztira, eta horietatik % 35ek ez dute bete hornitzailearekiko konpromisoa hartu baino lehen gastua baimenduta eta xedatuta izatearen legezko betebeharra.

2023. urtearekin alderatuta, hobekuntza oso txikia izan da, une hartan ez betetze-maila % 41,53koa izan baitzen.

Berririo sartuko da egiaztapen hori 2025eko ekitaldirako finantza-kontroleko planaren barruan.

DIRULAGUNTZEN INGURUAN

2.1.- Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntzak egoki eta zuzen lortu dituela diruz lagundu daitekeen gastuak kontratu txikirako zenbatekoak gaingitzen dituenean 3 eskaintza eskatzearen inguruko betebeharra bete dela egiaztatzea.

Herritarren lantaldean elkartutako teknikariek funtzionamendu-arau komun bat adostu dute. Arau horren arabera, mezu bat bidaliko diete elkarte guztiei, gogorarazteko eta azaltzeko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoa bete behar dela kontratu txikiaren mugak gaingitzen direnean 3 eskaintza eskatzeari dagokionez, bai eta behar bezala justifikatu ere, eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez bada.”

4.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- BEASAINGO LOINATZ UDAL MUSIKA ESKOLAREN ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAREN (AFA) ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko 2025-06-19ko proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2021-03-09an Gipuzkoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen AFA.

2. 2022/2023 ikasturterako Beasaingo Loinatz Udak Musika Eskolak irakasgai batzuk aldatu zituen baina ez ziren AFAn islatu.

3.- 2025-05-29. Plenoko erabakia, 2025-2026 ikasturterako Loinatz Udak Musika Eskolako kuota eta hobariak onartzeari buruzkoa.

OINARRI JURIDIKOAK

- Maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko musika-eta dantza-eskolei dagokionak, Zazpigarren xedapen iragankorrean, Antolakuntza eta Jarduera Araudia* (AJA) 2025eko abenduaren 31 baino lehen aurkeztea eskatzen du eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) ekainaren 30 baino lehen. Azken dokumentu honek, aurrekoari erreferentzia egiten dio.

- 64/2024 Dekretuak, bigarren ataleko 67.artikuluak, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak (IHP) eduki behar dituen atalak zehazten ditu. Atal horietako bat irakaskuntzaren antolamendua da: mailak, espezialitateak eta irakasgaiak.

- 2025/2026 ikasturterako Beasaingo Loinatz Udak Musika Eskolak irakasgai batzuk erantsi behar ditu irakaskuntza plangintzara, IHPan zehazten direnak.

Horren ondorioz, Herritar batzordeak proposatuta, Udalbatza Osoari ondorengoa onartzea proposatzen zaio:

Lehenik, Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolako Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiaren (AJA) aldaketari hasierako onespina ematea.

Aldaketak eranskinean adierazitakoak dira.

Bigarren, Jendaurrean jartzea dagokion iragarkia GAOean argitaratuz eta adieraziz 30 laneguneko epea egongo dela alegazioak aurkezteko. Epe horretan ez bada inolako alegazio edo erreklamaziorik aurkezten, AJA behin-betiko onartua geratuko da.

ERANSKINA

16. artikulua: “Gai osagarrien ordutegiak: Musika Lengoaia maila guztiak, harmonia, Analisia, Historia eta Informatika” esaten duen tokian,

Ondorengo esan behar du: “Musika Lengoaia maila guztietako ordutegiak, Abestigintza I, Abestigintza II, Musika ekoizpena, Ikus-entzunezkoetarako musika, Piano osagarria eta Piano akonpainamendua.

18. artikuluan: Gehitu “j) Irakaslea ebaluatzeko inprimakia ikasleen eskura ipintzea ikasturte amaieran 2.5 mailatik aurrera”.

21. artikulua aldatu egiten da eta honela geratu da: g) Musika Eskolak ezarritako epean, dagozkion kuotak ordaintzea, udalak onartutakoak, hain zuzen ere. Kuotak ez ordaintzeak ikaslearen baja ekar dezake. Nolanahi ere, osorik ordainduta egon beharko dute hurrengo ikasturtea hasi baion lehen. Gaixorik egoteagatik edo beste arrazoi batengatik eskolara ez joateak ez du kentzen kuotak ordaintzeko obligazioa.

26. artikuluan, 3. puntuan, “Musikoterapia” gehitu da.

31. artikulua: “ikasgai osagarriak: musika lengoaia, harmonia, analisia, Historia, Informatika, etab.”, esaten duen tokian, ondorengo esan behar du: “ikasgai osagarriak: Abestigintza I, Abestigintza II, Musika ekoizpena, Ikus-entzunezkoetarako musika, Piano osagarria eta piano akonpainamendua.

32. artikulua: Bosgarren puntuan, b) atalean “II. maila osoa egin eta III. mailan hasten diren ikasleak, ikasgai osagarriak eta talde-partaidetza aukeratu beharko baitituzte” esaten duen tokian,

Ondorengo esan behar du: “II.5 mailan ikasgai osagarria aukeratu behar baitute eta III. mailan hasten diren ikasleak, ikasgai osagarriak eta talde-partaidetza aukeratu beharko baitituzte.

32. artikulua: Seigarren puntuan, esaten duen tokian:

“1. Matrikula berritzeko inprimakia eta jarraitu beharreko jarraibideak jasotzea.

2. Datuen eguneratzea, akatsak zuzentzea eta ikasgai, talde nahiz espezialitate aukeraketa, dagokien ikasleei.

3. Ikasleek edo haien arduradunek matrikula onartzea.

4. Matrikula tasa ordaintzea. 5. Instrumentu espezialitateen edo kantuen ordutegiak esleitzea.”

Ondorengo esan behar du:

“1. Matrikula berritzeko jarraitu beharreko jarraibideak jasotzea, baita baldintzen inguruko informazioa ere eta horiek onartzea.

2. Datuen eguneratzea, akatsak zuzentzea eta ikasgai, talde nahiz espezialitate aukeraketa, dagokien ikasleei.

3. Instrumentu espezialitateen edo kantuen ordutegiak esleitzea.”

33. artikuluan: Lehen puntuan, “ordaindu beharreko matrikulazio-tasa” esaten duen tokian,

Ondorengo esan behar du “matrikulazio-tasa kuotarekin batera lehen hilabetea kargatuko denaren adierazpena”.

36. artikulua kendu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena eta Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskola Antolamendu eta Jarduera Araudiaren aldaketari hasierako onespena eman zaio:

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Izaera.

1. Beasaingo Musika Eskola 1977ko irailean sortu zen, udal Bandako zuzendariaren erretiratzearen ondorioz.

Apirilaren 5eko 75/1982 Dekretuak, Beasaingo Musika Eskola Oinarrizko Mailako musika irakaskuntzako zentro ez ofizial onartua izendatu zuen.

1989ko ekainaren 8ko batzarrean, Udalbatzak sortu zuen Beasaingo Musika Kontserbatorioa deitutako Erakunde Autonomoa. Era berean, irailaren 5eko 185/1989 Dekretuak balio akademiko ofiziala eman zion Beasaingo Oinarrizko Kontserbatorioan irakatsitako Oinarrizko Mailako musika irakaskuntzei.

1990ko otsailaren 19ko Aginduak, Ertaina Mailako balio ofiziala eman zion: Solfeo 5.maila eta Korala 2.maila.

1991eko abenduaren 17ko Dekretuak Ertaina Mailako musika irakaskuntzak emateko baimena eman zion.

1992an, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuko aldi bateko xedapenak diren 1.etik 5.era bitartekoaren aplikazioaz, araututako irakaskuntzako musika ikastetxeak, hau da, oinarrizko eta ertaina mailako kontserbatorioak, Musika Eskola bihurtu ziren. Honen ondorioz, 1993ko urriaren 11ko aginduak, baimendu zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoko kontserbatorioak Musika Eskola bihurtzea (EHAO 93-11-11).

Beasaingo Udalbatzak 2019ko maiatzaren 23an ohiko osoko bilkuran “Beasaingo Loinatz Musika Eskola Erakunde Autonomoa” desegin zuen, Udal Azpisaila bilakatuz Herritarrak Sailaren barruan.

Aurrerantzean Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskola.

Musika Eskola, ekonomiko eta administratibo arloan, Beasaingo Udaleko gobernu organoek, dagozkien konpetentzietan hartzen dituzten akordioen menpe egongo da.

Beste maila guztietan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arauaz gidatuko da, 2024ko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak dionez, edo materiari buruz ezartzen diren beste edozein arauaz.

2. artikulua. Zereginak eta Jarduera.

Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskola, musika irakaskuntzako ikastetxe bat da, musikaren alorretan, bost urtetik gorako ikasleei musikaren alorretan prestakuntza praktikoa eskaintzen duena, gaitasun eta bokazio berezia erakusten dituztenentzat lanbide-ikasketarako bideratzeko eta prestatzeko zeregina alde batera utzi gabe.

Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolaren helburu nagusiak dira:

a) Hautzarotik musika baloratze eta ezagutza sustatzea, haurrei txikitatik ikaste horretan hasiz.

b) Irakaskuntza Instrumentala eta Kantua eskaintzea, bakar lanean nahiz taldean praktikatzera bideratuta.

- c) *Musika-jardueren artean dauden aukera guztiak eskaintzea: musika klasikoa, folklorea, elektronikoa, jazza, rocka, e.a. baldin eta aukera ekonomikoek ahalbidetzen dute.*
- d) *Praktika Instrumentalaren eta Kantuaren musika irakaskuntza osagarria ematea.*
- e) *Talde bokal eta instrumentaletan parte hartzeko interesa ikasleengan sustatzea.*
- f) *Emanaldi publikoak antolatzea eta ekintza musikaletan parte hartzea.*
- g) *Ikaslearen talentu berezia eta bokazioak hala dioen kasuetan, lanbide izaera dituen irakaskuntzara bideratu, aipatu irakaskuntzan sartzeko prestakuntza egokia emanaz.*
- h) *Bertako eta eskualdeko tradizioak bildu, taxutu eta zabaltu, herriko kultura-nortasunaren gune bilakatzuz.*
- i) *Euskadi, Espainia eta Europako Musika Eskolekin harremanetan egotea, irakaskuntza metodologiak, ikasleak eta irakasleak elkarren artean trukatzeko, jarduera batzuk batera egiteko, antolaketa eredu berri elkarri emateko, etab.*

I.TITULUA

GOBERNU ETA KUDEAKETA

1. Atala. Gobernu Organoak

3. artikulua. Alkatea.

-Alkatea: Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan aurreikusten diren eskumenak.

4. artikulua. Udalbatza.

-Udalbatza: Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluan aurreikusten diren eskumenak.

5. artikulua. Gobernu Batzordea.

-Gobernu Batzordea: Alkateak edo Plenoak delegatzen dizkion eskumenak.

2. atala. Organo osagarriak.

6. artikulua. Batzorde informatzailea.

-Batzorde Informatzailea: Korporazio bakoitza osatu ondorenko plenoak egiten duen lehenengo bileran ezarritako funtzioak.

3. Atala. Kudeaketa Organoak

7. artikulua. Zuzendaria.

Dagokion Batzordeak informatzaileak, klaustroaren proposamena entzun ondoren, zuzendaritzaren izendapena eta dagokionean kargua uzteko proposamena egingo du, gaiarekiko zerikusia duten lege xedapenei atxikita, Udalaren onespenean jarritz.

7.1 Zuzendariaren funtzioak izango dira:

- a) *Batzorde informatzailearen akordioak egikaritu eta bete araztea.*
- b) *Batzorde informatzailean landu eta onartuko diren gaiak prestatu.*
- c) *Batzordea aholkatzea.*

- d) Bileretara joatea, ahotsarekin baina botorik gabe.
- e) Kudeaketa ekonomikoa, onetsitako aurrekontuaren eta ezarritako oinarrien arabera garatzea.
- f) Zerbitzuaren kudeaketa ekonomikoaren jarraipena gauzatu.
- g) Zerbitzua zuzendu eta ikuskatzea, Saileko buruaren gainetiko zuzendaritza eta ikuskatzailatzarekin.
- h) Musika Eskolaren Antolakuntza eta funtzionamendu ona bermatu.
- i) Ikastetxearen iraupena eta mantenua zaintzea, Udaleko Zerbitzu Sailaren laguntzarekin.
- j) Musika Eskolako korrespondentzia sinadura erabiltzea.
- k) Ikasturteko memoria egiteko prozesuan parte hartzea.
- l) Batzorde informatzaileari bere esku emandako zerbitzuen administrazio eta Musika Eskolaren gizarte-helburu den irakaskuntza, arte eta kultur jardueraren artean beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzea.
- m) Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolako eta bere mende dituen gainerako zerbitzu, establezimendu, edo arte-taldeen ihardun egitarauak, aurrekontuak, baliabide materialen beharrianak eta pertsonalak nahiz bere ihardun arloa hobetzen laguntzen duten inguruabar guztia sartuz.
- n) Irakasle, ikasle eta bere erantzukizuna hedatzen zaien talde eta zerbitzuetako partaideengan irakaskuntza eta diziplina arloko eginkizunak egikaritzea.
- o) Ildoak gauzatzea eta Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolako musika-politika garatzea, Batzorde informatzaileari bidezkoak iruditzen diren ekimen guztiak proposatuz.
- p) Ikasleen onarpen prozesua gainbegiratzea.
- q) Giza Baliabideak:
1. Irakasleen aukeraketa prozesua kudeatu.
 2. Musika jarduerarekin zerikusia duten ekitaldiak, musika taldeak eta musikarien aukeraketa kudeatu.
- r) Musika Eskola osoari koherentzia eta batasuna eman bere hezkuntza aspektu guztietan.
- s) Departamentu Didaktiko ezberdinen proposamenak onartu edo aldatu bere onarpenerako beharrezkoa izango balitz.
- t) Batzorde informatzaileari proposatu, egokiak iruditutako bezainbeste neurri, Musika Eskolako funtzionamendua eta zerbitzua hobea izan dadin.
- u) Eskolako jardueren eta kontzertuen ekoizpeneko koordinazioa.
- v) Baliabide teknologikoen koordinazioa Informatika Sailarekin.
- x) Administrazio Unitateko lana antolatu eta gainbegiratu.
- y) Klaustroko gai zerrenda prestatu.
8. artikulua. Irakasleriaren Klaustroa.
- a) Irakasleen klaustroa, Beasaingo Udaleko plantillan dauden irakasleen organo kolegiatua da, Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolari atxikirik daudelarik. Lehendakaria Eskolako zuzendaria da eta bera egoten ez denean, berak bere ordezkari izendatutako pertsonak beteko ditu haren eginkizunak.

b)Klaustroa legeztatu joko da irakasle guztien erdiak gehi bat bertaratu gero. Quorum horri eutsi beharko zaio bilkura osoan erabakiak legeztatu izan daitezten. Nahitaez izan behar da bileran idazkaria edo honek izendatutako ordezkaria.

c)Erabakiak bozketa arruntaren bidez hartuko dira, norbaitek isilpeko bozketa eskatu ezean.

d)Akordioak onartuko dira aldeko botoen gehiengo hutsa edukita. Berdinketarik egotekotan, beste bozketa bat izango da eta, berdina- ketak bere hartan iraunez gero, lehendakaritza kargua duenaren kalitatezko botoak erabakiko du.

e)Klaustroak 7 izango dira ikasturteko: 1 hasieran, 5 ikasturtean zehar eta 1 amaieran. Hala ere, komenigarritzat jotzen bada, klaustro gehiago deitu ahal izango dira.

f)Deialdia gutxienez 8 egun lehenago adieraziko da, premiazko kasuetan ezik, 48 ordu lehenago izango delarik.

g) Ezingo da erabakirik hartu gai-zerrendan ez dauden gaiak buruz, salbu eta klaustroak, kideen legeztatu gehiengo osoaren botoarekin, premiazkotzat jotzen bada eta dagokion proposamena aurkeztu bada.

Klaustroko Aktak:

Eskolako Administrazio Arloaren arduradunak, edo hark eskuordetutako kideak, jasoko ditu aktak. Irakasleei bidaliko dizkie e-mailez hiru laneguneko epean. Akta hurrengo bileran onartuko da, gai-zerrendako lehen gaia izanik.

Klaustroaren funtzioak:

a)Musika Eskolako Hezkuntza Proiektua onartu.

b)Ekintzen plan orokorrarekin bat datozen irizpideak proposatu.

c)Urteko plana eta ikasturte amaierako Memoriaren oniritzia eman.

d)Ebaluaketa lana, ikasleen errehabilitazioa eta ikasle berriak onartzeko aukeraketa frogei buruz, irizpideak finkatu eta koordinatu.

e)Esperimentatze eta ikerketa pedagogiko mailan ekimenak sustatu.

f)Batzorde informatzaileari egokiak iruditzen zaizkien bezainbeste proposamen eta txosten aurkeztu.

g)Ikastetxeko ekonomiko nahiz akademiko martxa ezagutzea.

h)Plazen sorkuntza edo aldaketak proposatu Batzorde informatzaileari.

i)Irakaskuntza eta ikasleei buruz azaltzen diren zalantzazko kasuetan erabaki eta iritzia eman, Batzorde informatzaileak eskatzen bada.

j) Ikasketa planen onarpena.

k)Irakasleriaren hobetze formakuntza programak proposatu.

l)Urteko plana eta ikasturteko Memoria gauzatze prozesuan parte hartu.

m)Legalki eginarazten diren beste edozein.

9. artikulua. Departamentu Didaktikoak.

Musika Eskola Departamentu Didaktikoetan egituratuta dago, ematen diren diziplinen arabera.

9.1 Departamentu Didaktikoak:

1. Haria.

2. Haizea -egurra eta metalak-

3. Perkusioa.

4. Akordeoia eta Trikitixa.

5. Pianoa.

6. Gitarra.

7. Txistu eta Dultzaina.

8. Kantua, Korala eta Abesbatza.

9. Musika Tailerra eta Musika Lengoia.

10. III. Mailako Ikasgai osagarriak.

11. Musikoterapia

12. Etorkizunean sortzen direnak eta aurrekoekin lotuta ez dauden guztiak, hala nola joera modernoak etab.

9.1.1 Departamentu Didaktikoen funtzioak izango dira:

a) Plan Pedagogiko orokorra egin.

b) Hezkuntza helburuak finkatu.

c) Eduki hezigarriak mugatu.

d) Ebaluaketa irizpideak eta eskatuko diren gutxieneko edukiak mugatu.

e) Ikaslegoa mailaz pasatzeko irizpideak zehaztu.

f) Musika Eskolako hezkuntza eskaintzako irizpideak proposatu, eskaera nahiz sustatu nahi den eskaintzaren arabera.

g) Ekintzak antolatu, bai ikasleentzako (kontzertuak, entzunaldiak,...) bai irakasleentzako (ikastaroetan parte hartu, kongresu...).

h) Behar diren instrumentuak eta baliabide didaktikoak antolatu eta aukeratu.

i) Ikasle berriak aukeratzeko frogetan erabiliko diren irizpide teknikoak ezarri.

j) Ebaluaketa metodoak eta frogak antolatu eta egin.

k) Frogen emaitzak aztertu eman diren metodologia eraginkorrak edo desegokiak, eta zuzentze eta hobetze neurriak hartu.

9.2 Departamentu Arduradunak

Irakasle bat baino gehiago dauden Departamentu Didaktikoetan arduradun bat izango da.

9.2.1 Arlo Arduradunaren funtzioak izango dira:

a) Espezialitatearen irakasleen arteko koordinazio lanak egingo ditu.

b) Metodo eta Programazio berbera lantzea bermatuko du.

c) Bileretako deialdia egin eta zuzendu.

d) Departamentu didaktikoetan landuko diren gaiak prestatu eta antolatu.

e) Egitarauak eta ondorengo ebaluaketak betetzen direla bermatu.

f)Zuzendaria informatu landu diren gaiei buruz, eta beharrezkoa izango balitz irakasle klaustroan landu badaezpadako neurriak.

g)Zuzendariari lagundu Ikastetxeko antolaketa lanetan.

10. artikulua. Administrazio Unitatea.

Administrazio Unitatearen eginkizuna da hartzen diren kudeaketa akordioak gauzatzea. Era berean, honako eginkizun hauek ere bere gain hartuko ditu:

a)Matrikulazioa.

b)Ikasleen Datu Basea eguneratuta mantendu.

c)Ikasleen taldeak, zerrendak etab antolatu.

d)Ikasleekiko eta hauen arduradunekiko komunikazioa: oharrek, jakinarazpenak etab.

e) Irakasleek hiru hilean behin egindako balorazio txostenak ikasleei bidaltzea.

f)Harrera telefonikoa.

g)Hainbat baliabide material edota didaktikoen erostea eta fakturatzea.

h)Hileko Tasen Padroia prestatu.

i)Kanpo komunikazioa, web, sare sozialak.

j)Mantenuko koordinazioa Zerbitzu Azpi Sailarekin.

k)klaustroaren bileren akta egin, Araudi honetako 8. Artikuluak dioen arabera.

l)Eusko Jaurlaritzaren Diru-laguntza eskaera betetzea eta izapidetzea.

m) DAEk eskatzen dituen datuak betetzea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bidaltzea.

n) Esleitu dakiokkeen beste edozein eginkizun.

Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolan lan egiten duten administrazioko langileek ere araudi hau bete beharko dute.

Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolako zuzendaritzak egiten duen urteko lan egutegian, administrazioko langileak ere berariaz aipatuko dira, Musika Eskolaren beharrak kontuan hartuta. Egutegi hori Udaleko Antolakuntza eta GG BB Azpi Sailera bidaliko da.

II. TITULUA

IRAKASLEAK

1. atala. Lanaldia.

11. artikulua. Irakasleen lanaldia.

Irakasleen lanaldian egun lektiboak eta presentzialak bereiztuko dira.

Egun lektiboak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ematen dituen irizpideen arabera kopuruan. Egun lektibotzat joko dira klaseak ematekoak, gainera, proba pedagogikoak egiteko edo ikasleekin jarduera pedagogikoak egiteko egunak.

Egun presentziazkoak, Toki Administrazioko funtzionarioei eta laboralak diren langileei aplikatu beharreko hitzarmenean finkatzen den egutegia betetzeko falta diren gainerako egunak izango dira. Eskolaz kanpoko garaikoak izango dira, eta birziklatze ikastaroak, proiektuak, txostenak, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar gauzatzeko erabiliko dira.

12. artikulua. Irakasleen lanaldiaren kontzeptuak.

1. Irakasleen asteko lanaldia Eskolaren Urteko Kudeaketa Planean jasoko da eta kontzeptu hauen arteko bereizketa egingo da:

-Ordu Lektiboak: Onartutako eskolako egutegiaren barruan, klase teorikoak edo praktikoak emateko eta era guztietako probak egiteko erabiliko direnak, ahozkoak, idatzizkoak, instrumentalak, etab.,.

-Ordu Osagarriak: asteko lanaldia osatu arteko orduak dira. Klaseak prestatzeko, ariketak eta jarduerak prestatzeko eta ebaluatzeko, jardura osagarriak prestatzeko eta egiteko, departamentuko bileretara joateko, tutoretzarako, ebaluazio bileretarako, gurasoekin bilerak egiteko, kide anitzeko organoetan parte hartzeko, kultur jardueretarako, entzunaldietarako, ikerketarako eta abarrerako erabiliko dira.

2.Hitzarmenean jasotzen den bezala, ordu kopuru bat dago, gainerako langile publikoekin parekatu artekoa, profesionaltasuna mantentzeko, irakaslanak dituen eginkizunak betetzeko eta zerbitzuaren ordutegien espezifikotasuna konpentsatzeko.

13. artikulua. Ordu murrizketa Ikastetxeko zuzendaritza karguagatik.

Zuzendari ardura duen irakasleak ordu lektiboen murrizketa eta hitzarmenean ezartzen direnen artean esleitutako ordainsari osagarriak izango ditu.

14. artikulua. Ordu murrizketak Taldeen zuzendaritza arduragatik.

Talde Instrumental nahiz Koral Zuzendari ardura duen irakasleak eskola orduen murrizketa izango du, hitzarmenean zehaztutakoaren arabera. Era guztietara talde bakoitzaren ekintzen kopuruarekin koherentzia izango du.

15. artikulua. Ordu murrizketak proiektu espezifikogatik.

Ordu lektiboak murriztu ahal izango dira, zuzendaritzaren iritziz Musika Eskolarentzat interes orokorrekoak diren proiektu espezifikoak egiteko.

2. atala. Orduetegiak.

16. artikulua. Orduetegiak prestatzeko prozesua.

Orduetegiak prestatzeko prozesua eta horiek kontrolatzea Zuzendariaren ardura da, eta Eskolaren interesen arabera eta ikastetxeetako orduetegiak kontuan izanda prestatuko dira.

Irakasle bakoitzaren orduetegi partikularrak egiterakoan aurretik ezarritako orduetegi orokorrak kontuan izango dira, besteak beste:

- Musika Lengoaia maila guztietako orduetegiak, Abestigintza I, Abestigintza II, Musika ekoizpena, Ikus-entzunezkoetarako musika, Piano osagarria eta piano akonpainamendua.

-Talde Instrumentalen nahiz Koraleen entsegu orduetegiak.

-Irizpide aplikagarriak:

a)Orduetegi partikularrak inolaz ere ezin dute talka egin aurreko ataletan ezarritako orduetegiekin.

b)Musika Eskola ez dago behartua beste eskolaz kanpoko orduetegiak errespetatzera. Besteekiko nagusitasuna du.

-Irakasleriak orduetegi partikularrak emango dizkio Zuzendariari, gainbegiratze arren.

-Irakasleriaren orduetegi koadroa bistan egongo da irakasle gelan.

-Era berean, Udaleko GGBB arlora bidaliko da fitxaketen kontrola gauzatzeko.

-Zuzendaritzak osatuko du gela disponibiltate koadroa ikasleek ikasteko erabili dezaten. Bertan ikasle erabiltzaile guztien izenak eta orduak ezarriko dira.

3. atala. Eskubideak eta betebeharrak.

17. artikulua. Irakasleen eskubideak.

Lan alorreko legeek onarturikoez gain, irakasleek honako eskubide hauek edukiko dituzte:

a)Instalazioak bakoitzak bere eginkizunerako erabiltzea, 50. artikuluan jasotzen den arabera.

b)Bere orduetgia prestatzea Musika Eskolaren irizpideen arabera.

c)Beren eginkizunak betetzeko behar duten materiala edukitzea.

d)Segurtasun eta higiene baldintza egokietan irakastea.

e)Klaustro bileretara bertaratzea.

f)Kontzertuetan jardun ahal izatea, jarduera sortzaileetan parte hartu ahal izatea eta bere espezialitateko ikastaro edo kongresuetara joan ahal izatea, gaitasun artistiko eta pedagogikoa eguneratuta edukitzeko helburuarekin, beti ere irakaskuntza jarduerari kalterik egin gabe.

g)Aurreikusitako ordutegia aldatu ahal izatea, zuzendaritzari aldeztu aurretik eskatuta.

18. artikulua. Irakasleen betebeharrak.

Lan harremanaren ondoriozkoek gain, irakasleek honako betebeharrak hauek edukiko dituzte:

a) Puntualtasunez ematea bere klase guztiak.

b) Klaseetan ordena eta diziplina mantentzea eta aprobetxamendua sustatzea, eta zuzendaritzari eta ikasleen arduraduneri gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea.

c) Irakasleen txostenak prestatzea, non asistentzia, probetxua eta eboluzioa jasoko den, hain zuzen ere. Aipatutako txostenak ikasleei emango zaizkie.

d) Esleitzen dizkieten ikasleen tutorea izatea.

e) Irakasleek edota ikasleen arduradunak hartu ezarritako arreta ordutegian.

f) Laneko zereginen buruz eskatzen dizkieten txostenak egitea.

g) Irakasle Klaustroetara, ebaluazio saioetara, pedagogia bileretara eta deitutako bestelako bileretara bertaratzea.

h) Musika Eskolaren arauak betetzea, desadostasunen berri eman dezakeela alde batera utzita.

i) Izendatutako karguak onartzea, ados ez badago izan ezik.

j) Irakaslea ebaluatzeko inprimakia ikaslearen eskura ipintzea ikasturte amaieran 2.5 mailatik aurrera.

III. TITULUA

IKASLEAK

1. atala. Eskubideak eta betebeharrak.

19. artikulua. Erreferentzia esparrua.

Irakasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, adinaren, zikloaren eta mailaren arabera, eta bai gobernu organoek bai Beasaingo Loinatz Udala Musika Eskolak errespetatu beharko dituzte.

20. artikulua. Irakasleen eskubideak.

a) Bere duintasun pertsonala errespetatua izateko eskubidea, eta tratatu egokia izateko eskubidea.

b) Beren eskola errendimendua objektibotasun irizpideen arabera baloratua izateko eskubidea.

c) Ikastetxeko zuzendaritza-organismoetan ekimenak, iradokizunak edo erreklamazioak egiteko eskubidea.

d) Ezarritako ordutegi akademikoa errespetatzeko eskubidea, eta irakaskuntza jardueran eteten den kasuetan, behar besteko aurrerapenaz jakinarazteko eskubidea.

e) Kalitatezko irakaskuntza jasotzeko eta helburu horretarako ikastetxean dauden baliabide materialak erabiltzeko eskubidea.

21. artikulua. Irakasleen betebeharrak.

a) Musika Eskolako arautegia onartu eta betetzea.

b) Hezkuntza komunitatea osatzen duten gainerako pertsonen eskubideak eta askatasunak errespetatzea.

c) Ikasten dituzten irakasgaien eskoletara joatea.

d)Zuzendaritzaren eta irakasleen xedapenak eta aginduak betetzea, bai irakaskuntza araubideari, ordenari eta barne diziplinari buruzko guztiari ere.

e)Helbidearen, telefonoaren, k.k.aren, helbide elektronikoaren etab. izandako aldaketen berri ematea.

f)Eraikinean edo Musika Eskolako materialean eragiten dituzten kalteak konpondu eta birjarri behar dituzte.

g)Musika Eskolak ezarritako epean, dagozkion kuotak ordaintzea, Udalak onartutakoak, hain zuzen ere. Kuota ez ordaintzeak ikaslearen baja ekar dezake. Nolanahi ere, osorik ordainduta egon beharko dute hurrengo ikasturtea hasi baino lehen. Gaixorik egotegatik edo beste arrazoi batengatik eskolara ez joateak ez du kentzen kuotak ordaintzeko obligazioa.

h)Ezarritako ordutegia errespetatzea.

i) Parte hartzen duten jarduera edota kontzertuetan Musika Eskolak ikus-entzunezko grabazioak egin ahal izatea baimentzea, honen sustapenerako edo erabilerako. Horregatik, ikasleek ez dute inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

j) Ikasten dituzten irakasgaien klaseetara unean-unean bertaratzea, baita parte hartzen duten taldeen entseuetara ere.

k)Ikasteari behar den denbora ematea, jasotako irakaskuntzak behar bezala aprobetxatzeko helburuarekin. Hartutako lezioak behar bezala aprobetxatzen ez dituela egiaztatuz gero, ikasleak galdu ahal izango du matrikula berritzearen eskubidea.

Horretarako, prozedura ondorengoa izango da:

Irakasleak zuzendaritzari, ikasleari eta bere arduradunei jakinaraziko die eta ikaslearekin eta bere arduradunekin tratatuko du gaia.

Egoerak bere horretan jarraitzen badu, zuzendaritzak idatzizko komunikazio bat bidaliko die ikasleari eta bere arduradunei, datorren ikasturtean ikasgaien matrikulatzeko eskubidea galtzeko aukeraren berri emateko.

Arazoa konpontzen ez bada, zuzendaritzak idatzizko komunikazio bat bidaliko die ikasleari eta bere arduradunei, matrikula berritzeko eskubidea galdu duela jakinarazteko.

2. atala. Diziplina araubidea.

22. artikulua. Arau hausteak.

1.Ikasleen arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2.Arau hauste arinak:

a) Justifikatu gabeko puntualtasun faltak.

b)Behar ez bezala erabiltzearen ondorioz kalte ez larriak egitea Musika Eskolako lokalei, materialari edo dokumentuei.

c)Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banakoa edo taldekoa, baldin eta Musika Eskolako ohiko jarduna modu arinean aldatzen badu.

3.Arau hauste larriak dira:

a)Justifikatu gabeko asistentzia hutsak.

b)Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, irainezko edo ofentsa ekintza.

c)Behar ez bezala erabiltzearen ondorioz kalteak egitea Hezkuntza Komunitateko gainerako kideen gauzei.

d)Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banakoa edo taldekoa, baldin eta Musika Eskolako ohiko jarduna modu larrian aldatzen badu.

e)Ikasturte berean 3 arau hauste arin egitea.

4.Oso arau hauste larriak dira:

a)Ikasturte berean 6 asistentzia huts justifikatu gabeak, banakakoak nahiz taldekoak izan.

b)Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, irainezko edo ofentsa ekintza oso larriak.

c)Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako eraso fisiko oso larriak.

d)Beste inoren lekua hartzea hezkuntza ekintzetan eta dokumentu akademikoak faltsutzea edo lapurtzea.

e)Hezkuntza Komunitateko kideen osasun eta osotasun pertsonalerako ekintza oso kaltegarriak bultzatu edo egitea.

f)Nahita kalte larriak egitea Musika Eskolako lokalei, materialari edo dokumentuei edo Hezkuntza Komunitatea osatzen duten kideen gauzei.

g)Larritzat jotako arau hausteak, baldin eta taldeka edo nahita iragarrita gertatzen badira.

h)Ikasturte berean hiru arau hauste larri egitea, banakoak edo kolektiboak izan.

5.Eraso sexual eta sexistak, Beasaingo Udalaren prebentzio eta jardute protokoloa, sexu jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkakoa dokumentuan jasotzen diren bezala sailkatuko dira.

23 artikulua. Zigorrak.

1.Aurretik zerrendatutako arau hausteengatik, honako zigor hauek ezar daitezke:

Arau hauste arinengatik:

-Ahoz edo idatziz kargu hartzea eta idatziz jasota uztea, ikasleei eta bere arduradunei txosten zehaztua bidali ahalko zaie, egoeraren arabera.

Arau hauste larriengatik:

-Musika Eskolatik aldi baterako bidaltzea.

Arau hauste oso larriengatik:

-Musika Eskolatik ikasturte osorako behin betiko bidaltzea, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko eskubidea ere galtzea eraman dezakeena.

2.Kalte materialik egotekotan, arau hausleak eragindako kalteak konpondu beharko ditu edota konponketa ordaindu. Era berean, ikasleren batek Musika Eskolako ondasunik lapurtuz gero, ostutakoa berriro ekarri beharko du. Nolanahi ere den, ikasleen arduradunak izango dira ikasleen erantzule zibilak, legeek xedaturikoaren arabera.

24. artikulua. Zigor jardunbidea.

1.Zehapenak ezartzeko organo eskuduna alkatea izango da.

Arau hauste arinak ikasleari, irakasleari eta haren arduradunei entzun ondoren ezarriko dira.

Arau hauste larriak eta oso larriak ikasleari eta, adingabea bada, haren arduradunei entzunaldia emateko prozedura bideratu ondoren ezarriko dira.

Instrukzio organoa Musika Eskolako zuzendaritza izango da, eta alkateak ebatziko du.

2.Arau hauste arinak sei hilabeteko epean iraungiko dira, larriak bi urteko epean eta oso larriak hiru urteko epean, egin ziren egunetik aurrera.

Halako jokabideak direla eta ezarritako zigorrek urte bateko epean iraungiko dira arau hauste arinak badira, bi urteko epean arau hauste larriak badira eta hiru urteko epean arau hauste oso larriak badira.

3.Zigorrek ezartzerakoan kontuan izango dira ikaslearen adina, egoera pertsonala, familiarra eta soziala, eta zigorrek helburu hezigarri eta errekuperazioko izaera izango du.

4.Zigorra ezartzerakoan, honako hauek balioetsiko dira,

Inguruabar aringarriak:

a) Arau haustea berez onartzea.

b)Lehendik bestelako zigorrak jaso ez izana.

c)Jendaurrean barkatzeko eskatzea.

d)Egindakoaren neurriko kalterik egiteko asmorik eduki ez izana.

Inguruabar larrigarriak:

a) Kaltea txikiago bati, minusbaliatuari edo Eskolara etorri berriari egin zaionean.

b) Nahita egitea.

c) Jakinaren gainean egitea.

d) Taldeko arau haustea bultzatzea.

e) Eskolan ordezkari izatea arau haustea egiteko erabiltzea.

5. Arau haustea Musika Eskola esparrutik kanpo gertatzeak ez du galaraziko honako araudi hau erabiltzerik, baldin eta eskolak programaturiko ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoetan izan bada.

25. artikulua. Asistentzia hutsak.

Ikasleek eskolara joan beharra bermatzeko, ondoko arauak izango dira gogoan.

1. Irakasleek, zuzendaritzari adierazi eta gero, ikasleen huts eginak kontrolatu beharko dituzte eta ikasleen arduradunei jakinarazi beharko die gertatzen diren unean bertan, era berean huts egitearen zergatiaz galdetuz.

2. Irakasleak klase hutsen ondorioen jakitun jarriko du ikaslea, baimendutako klase hutsen mugara heldu aurretik.

3. Ikasleak ikasturte berean justifikatu gabeko 6 huts egingo balitu eta Araudi honetako 23. artikuluan aurreikusitako neurriekin zigortu beharko balitz, zuzendariak interesatuei jakinaraziko die.

4. Klase hutsegite justifikatutzat joko dira honako hauek:

a) Gaixotasun aldi baterakoa edo luzea.

b) Gertaera edo zirkunstantzia pertsonal larriak edo ohiz kanpokoak.

c) Musika Eskola honetako beste edozein ekintzarekin bat etortzea.

5. Adin txikikoen klase hutsegiteak idatziz justifikatu beharko dituzte haren arduradunek, eta irakasleari eman beharko dizkiote. Ikasle helduek euren hutsegiteak justifikatuko dituzte.

6. Ez dira huts justifikatutzat joko eskolaz kanpoko beste jarduera batzuetara joateagatik egindakoak: Hizkuntza klaseak, kirol jarduerak eta katekesia. Kontsiderazio berezia izan ahalko dute aparteko eta puntualki gauzatzen diren danborrada, taldeko dantza eta 1. Jaunartze entseguak, era berean eskola txangoak.

IV. TITULUA

KUDEAKETA ETA EBALUATZEKO TRESNAK

1. atala. Hezkuntza eskaintza.

26. artikulua. Hezkuntza eskaintza.

1. Hezkuntza Eskaintza gestio tresna bat da, Musika Eskolan diren plazak zehazteko balio duena.

2. Zuzendaritzak zehaztuko du Hezkuntza Eskaintza, non espezialitate eta ikasgai bakoitzeko guztira dauden plazak adieraziko diren.

3. Hezkuntza Eskaintza egiterakoan ahaleginak egingo dira Musika Eskolan ikasleen banaketan oreka hobetzeko. Horretarako, plaza batzuk eskainiko dira honako ezaugarri hauek aintzat hartuta:

a) Adina. Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleek lehentasuna izango dute.

b) Instrumentu Espezialitateak eta kantua.

c) Ikasgai osagarriak.

d) Talde instrumentalak nahiz Kantukoak.

e) Musikoterapia

4. Hezkuntza eskaintzan hutsik dauden plazei buruzko informazioa emango zaio eskatzen duenari.

2. atala. Urteko Kudeaketa Plana (UKP)

27. artikulua. Urteko kudeaketa plana (UKP).

Eskolak Urteko Kudeaketa Plana (UKP) prestatuko du ikasturtea hasi aurretik, hezkuntza ekintza guztiak era koordinatuan egingo direla, eskuduntzak behar bezala erabiliko direla eta kolektibo guztien parte hartzea bermatzeko.

Honako atal hauek izango ditu Urteko Kudeaketa Planak:

1. Arlo bakoitzerako helburuak eta planak.
2. Jarduera nagusien aurreikuspena hurrengo ikasturterako.
3. Ikasturteko eskola egutegia.
4. Ordutegi orokorrak.
5. Langileen urteko formazio plana.
6. Kudeaketa adierazleen helburuak.
7. Hurrengo ikasturtea kudeatzeko garrantzitsua den beste edozein informazio.

3. atala. Urteko kudeaketa txostena (UKT).

28. artikulua. Azalpen txostena (UKT).

Musika Eskolako Urteko Kudeaketa azaltzen duen Txostena eskola ebaluatzeko tresna da. Urteko Kudeaketa Plana nola bilakatu den ebaluatuko du, eta baita ikasturtean izan diren gorabehera guztiak eta hurrengo Urteko Kudeaketa Planean jaso beharreko hobekuntza proposamenak ere. Aipatutako txostenak jasoko ditu:

- 1- Egindako berrikuntza eta hobekuntza proiektu guztiei buruzko txostena.
- 2- Egindako eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarri guztien zerrenda eta balorazioa.
- 3- Langileen prestakuntza programaren balorazioa.
- 4- Hurrengo Urteko Kudeaketa Planean sartu beharreko hobekuntza proposamenak.
- 5- Helburuen balorazioa betetzea.
- 6- Amaitutako ikasturtean Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolak eginiko ekintza guztiak jasotzeko behar bezain beste eranskin (irakasleen txostenak, matrikula datuak, sustapenak, bileren aktak, prentsan agertutako berriak,...).

4. atala. Musika Eskolako Jarduerak.

29. artikulua. Musika Eskolako ohiko jarduerak.

1. Ohiko irakaskuntza jarduera guztiak Urteko Kudeaketa Planak (UKP) jarritako ordutegira egokituko dira nahitaez.

30. artikulua. Ez ohiko jarduerak.

1. Ez ohiko jarduerak izanez gero, instalazioak erabil litezke Musika Eskolako zuzendaritzak hartarako baimena emanaz gero, baldin eta haren helburuekin bat badatoz. Hartarako, zuzendaritzak behar beste baliabide jarriko du instalazioak eskola komunitate osoak erabili ahal izateko.

2. Urteko Kudeaketa Planean (UKP) jasotako berriarazko jarraibideak beteko dira instalazioak eta materiala erabiltzeko orduan.

V. TITULUA

MATRIKULA EGITEA ETA IKASLEAK ONARTZEA

1. atala. Matrikula.

31. artikulua. Matrikula.

1. Matrikula da izangaia Musika Eskolako ikasle bihurtzen duen dokumentu formala, eta haren bitartez bereganatuko ditu ikasleak dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

2. Eskolan matrikula egiteko, Musika Eskolak onartutako baldintzak bete beharko dituzte pertsonak, eta baita gerora ematen diren legeek eta araudiek xedatzen dituzten beste guztiak ere.

3. Matrikula egiteko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko berariazko musika irakaskuntza ez arautuko zentroen, Musika Eskolak, funtzionamendua erregulatzen duten arauetan jasotako irizpideak beteko dituzte ikasleek.

4. Matrikularako eta hileroko tasak ordaintzeko ezarritako epeetan ordaintzeko obligazioa ez betetzeak matrikula bertan behera uztea eta Musika Eskolako ikasle izateari uztea ekarriko du.

5. Honako irakaskuntza mota hauek jasoko dira matrikulan:

-Irakaskuntza nagusia: instrumentuak, kantu bakarlari eta kantua taldean.

-Espezialitate ez instrumentalak: Musika Tailerra 5 edo 6 urte, Musika Lengoaia, Musikoterapia, hirugarren adineko Musika Tailerra, ikastaroak, etab.

-Taldeak: Abesbatza, Banda, Instrumentu taldeak, Konboak, bikoteak etab.

-Ikasgai osagarriak: Abestigintza I, Abestigintza II, Musika Ekoizpena, Ikus-entzunezkoetarako musika, Piano osagarria eta piano akonpainamendua.

-Irakaskuntza Indartua: kontserbatorioetara sartzeko probak prestatzeko.

6. Pertsona bat gehienez bi instrumentutan egongo da matrikulatua aldi berean. Taldeetan parte hartzeak ez du mugarik.

2. atala. Ikasleak direnen matrikula berritzea.

32. artikulua. Ikasleak direnen matrikula berritzea.

1. Ikasleek matrikula berritzeko eskubidea izango dute, baldin eta eskolak onartutako baldintzak betetzen badituzte, bai eta ondorengo lege eta erregelamenduetan ezarritako beste edozein baldintza ere.

2. Ezin izango dute matrikula berritu Musika Eskolako tasaren bat ordaindu gabe dutenek.

3. Ikasturtean zehar jasotako irakaskuntzak nabarmen aprobetxatu ez direla zehaztu bada, araudi honen 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatu da, eta matrikula berritzeko eskubidea galduko da, bai eta urtebetez ikasgaiari sartzeko eskubidea ere.

4. Inoiz ezingo da matrikulatu beste espezialitate berri batean, matrikula berritzeko prozeduraren bidez. Espezialitate berri bat egin nahi izanez gero, matrikularik gabeko gainerako eskatzaileek bezala izenemate berria egin beharko du. Nolanahi ere, Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleek espezialitatea aukeratu ondoren.

5. Ikasleen matrikula hurrengo ikasturterako automatikoki berrituko da ikasgaiari ezarritako helburuak gainditu dituzten ikasle guztientzat, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleak, instrumentua aukeratu beharko baitute. Hutsik dauden plazarik baino eskaera gehiago dauden espezialitateetan, zozketa egingo da.

b) II. 5 mailan ikasgai osagarria aukeratu behar baitute eta III. mailan hasten diren ikasleak, ikasgai osagarriak eta talde-partaidetza aukeratu beharko baitituzte.

c) Beste instrumentu espezialitate bat edo kantua hasi nahi duten ikasle guztiek matrikularik gabeko gainerako eskatzaileek bezala izena eman beharko dute. Eskaera horiek lehentasuna izango dute ikasle berrien aldean, baina ez Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleen aldean, azken horiek baitute lehentasuna.

d) Hirugarren adinekoentzako musika-tailerra, matrikula amaitutzat emango delako ikasturte amaierarekin batera, eta matrikula berria egin beharko da taldean beste ikasturte bat gehiago parte hartu nahi izanez gero.

6. Ikasleen matrikula berritzeko prozesuak fase hauek izango ditu:

1. Matrikula berritzeko jarraitu beharreko jarraibideak jasotzea, baita baldintzen inguruko informazioa ere eta horiek onartzea.

2. Datuen eguneratzea, akatsak zuzentzea eta ikasgai, talde nahiz espezialitate aukeraketa, dagokien ikasleei.

3. Instrumentu espezialitateen edo kantuen ordutegiak esleitzea.

1. kapitulua. Matrikula berritzeko jarraitu beharreko jarraibideak jasotzea.

33. artikulua. Matrikula berritzeko jarraitu beharreko jarraibideak jasotzea.

1.Matrikula berritzeko prozesurako beharrezkoa den informazioa bidaliko die Musika Eskolak ikasleei, honako hauek zehaztuta:

- Akatsak zuzentzeko epea,
- Kuotak 10 hilabetez ordainduko direnaren adierazpena.
- Hurrengo ikasturteari dagokion inprimakia, honako hauek jasoko dituenak:
 - Ikaslearen datu pertsonalak,
 - Irakasgai osagarrien esleipena,
 - Irakasgai horien taldea eta ordutegia,
 - Datorren ikasturteari dagokion espezialitatearen maila.
 - Epezialitate instrumentalen eskaintza, M.L.Hastapeneko ikasleentzat, hain zuzen ere.
 - Irakasgai osagarrien eskaintza.

2. kapitulua. Datuen eguneratzea, akatsak zuzentzea eta ikasgai, talde nahiz espezialitate aukeraketa.

34. artikulua. Datuen eguneratzea, akatsak zuzentzea eta ikasgai, talde nahiz espezialitate aukeraketa.

1.Musika Eskolak zehazten duen epealdian, ikasleek datu pertsonalak eguneratu edo zuzendu beharko dituzte.

2.Epe berean, Musika Lengoia Hastapeneko ikasleek bi instrumentu espezialitate edo kantua aukeratu beharko dituzte eskaintzen zaizkien aukeren artean, lehentasunaren arabera. Hutsik dauden plazak baino eskaera gehiago dauden espezialitateetan, zozketa egingo da ikasle edota tutoreekin batera aurrez aurre.

3.Aldi berean, II.5 mailara eta III.1 mailara igotzen diren ikasleek, eskaintzen zaizkien ikasgai osagarrien artean aukeratu beharko dute, bai eta talde instrumental nahiz koru partaidetza dagokionean.

4.Epe berean, ikasleek taldez aldatzea eskatu ahal izango dute, eta aldaketa hori Musika Eskolak ezarritako irizpideei jarraituz egingo da.

3. Kapitulua. Ikasleek edo haien legezko tutoreek matrikula onartzea.

35. artikulua. Ikasleek edo haien legezko tutoreek matrikula onartzea.

1.Ikasleek edo haien legezko tutoreek, 35. artikuluan aipatutako aldaketak ebatzi ondoren, matrikula onartu beharko dute, eta Musika Eskolak zehaztutako moduan berretsi beharko dute.

2.Matrikula onartzeak ikasturte osoa ordaintzea dakar, 10 tasatan banatuta.

4. Kapitulua. Matrikula-tasaren kobrantza onartzea.

5. Kapitulua. Espezialitate instrumentalen edo kantuen ordutegiak esleitzea.

36. artikulua. Espezialitate instrumentalen edo kantuen ordutegiak esleitzea.

1. Eskolak zehazten duen epealdian, instrumentu espezialitateen edo kantuko ikasleek beren irakasleekin adostuko dute hurrengo ikasturterako klaseen ordutegia.

2. Aurreikusi gabeko arrazoiengatik gerta daitezkeen ordutegi-aldaketak irailean aztertuko dira, hurrengo ikasturtearen hasieran, irakasleekin batera.

3. atala. Ikasle berriak onartzea.

37. artikulua. Ikasle berriak onartzeko faseak.

Prozesuak honako faseak ditu ikasle berriak Musika Eskolan onartzeko:

1-Hezkuntza Eskaintza - plaza hutsak.

2-Matrikula eta baldintzen onarpena.

3-Maila jakiteko probak.

4-Plazak esleitzea.

5-Instrumentu nahiz kantuko ordutegiak aukeratzea.

8-Itxarote zerrendak.

1. kapitulua. *Hezkuntza Eskaintza - plaza hutsak.*

38. artikulua. *Hezkuntza Eskaintza - plaza hutsak.*

Ikasleak diren matrikula-prozesua amaitutakoan, Musika Eskolak Hezkuntza Eskaintza iragarriko du, plaza hutsak dauden espezialitateak adieraziz. Irizpide nagusia instrumentuen arteko oreka mantentzea izango da, Eskolak talde instrumental edo koral desberdinak antolatzeko gaitasuna izan dezan.

2. kapitulua. *Matrikula eta matrikulazio Tasaren ordainketa*

39. artikulua. *Matrikula*

1. *Eskolak epealdia jarriko du, nahi dutenek Musika Eskolan ikasteko eskaera egin dezaten.*

2. *Matrikula egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:*

-Familia Liburuaren edo nortasuna egiaztatzeko agiriren baten (NA, pasaporte edo baliokidea) fotokopia.

3. *Eskolan sartu nahi dutenek izena emateko eskaeraren inprimakian adierazitako informazioa eman beharko dute. Nahitaezko informaziorik ematen ez bada edo informazio hori faltua bada, prozesutik kanpo geratuko da, sor daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe.*

4. *Ezin izango dute izena eman, Eskolako ikasleak izanda, Tasaren bat ordaindu gabe dutenek, harik eta beren egoera erregularizatu arte.*

5. *Eskatzaileek bi taldetan sailkatu beharko dituzte espezialitateak edota irakasgaiak: lehen aukera edo bigarren aukera. Sailkapen honek plaza hutsak esleitzeko prozesuan izango du eragina. Gehienez ere bi espezialitatetan sartzeko eskatu ahal izango da. Aldez aurreko ezagutza eskatzen duen ikasgairen baterako plaza eskatu nahi izanez gero, mailako edota Musika Lengoiako proba bat egin beharko da.*

3. kapitulua. *Maila jakiteko froga.*

40. artikulua. *Maila jakiteko froga.*

1. *Maila jakiteko probaren bidez egiaztatuko da hautagaiak badituela eskatutako irakaskuntza mailan egoki hasteko beharreko gaitasunak.*

2. *Maila jakiteko frogak soilik baloratuko dira Gaingitua edo Ez Gaingitua kalifikazioekin. Maila berdina duten pertsonen artean lehentasun ordena zehazteko, izenemate ordena hartuko da kontuan.*

3. *Musika Eskolak eskatzailearen izenemateko maila aldatu ahal izango du, proban erakutsi duen mailaren arabera.*

4. *Musika Eskolak, curriculum edo egiaztagiria ikusita, maila jakiteko probatik salbuesteko erabakia hartu ahal izango du.*

4. kapitulua. *Plazak esleitzea.*

41. artikulua. *Plazak esleitzea.*

Plazen esleitzea izenemate ordenaren eta hutsik dauden plazen arabera egingo da.

5. kapitulua. *Espezialitate instrumentalen edo kantuko ordutegiak aukeratzea.*

42. artikulua. *Espezialitate instrumentalen edo kantuko ordutegiak aukeratzea.*

Musika Eskolak zehazten duen epealdian, kantu edo instrumentu espezialitateetako ikasle berriek beren irakasleekin adostuko dute hurrengo ikasturterako ordutegia. Ahalegina egingo da ordutegi eskaintza egokitze, kontuan hartuz ikasle gazteenei dagozkien adin tarteak eta bizilekua Musika Eskolarekiko.

6. kapitulua. *Itxarote zerrendak.*

43. artikulua. *Itxarote zerrendak.*

1. Ikasle berriak Musika Eskolan sartzeko prozesua amaitu ondoren, espezialitate batean ere plazarik lortu ez duten pertsonen eskaera guztiak eskatutako ikasgai bakoitzerako itxarote-zerrendetan sartuko dira.

2. Taldeko ikasgai, instrumentu espezialitate edo kantuko ikasgai bakoitzeko itxarote-zerrenden lehentasun ordena izenemate ordenak zehaztuko du hurrenez urren.

3. Hutsik geratzen diren lanpostuak, ezarritako lehentasun ordenari jarraituz, eskainitako plazaren ezaugarriak (adina, ordutegiak, maila edota ezartzen diren beste batzuk) betetzen dituen itxarote-zerrendako lehen pertsonari eskainiko zaio.

4. Instrumentu espezialitateetako plazak irailaren 30era arte eskainiko dira. Ikasturtean zehar ustezko baja eskaeraren bat betetzeko plazak eskaintzeko ahalmena izango du Musika Eskolak.

5. Plazak baldintza espezifiko batzuekin eskainiko dira (irakasleak, ordutegia), eta Musika Eskolak ez du horiek aldatzeko inolako betebeharririk izango.

6. Ikasgai osagarrietako plazak soilik irailaren 30era arte eskainiko dira.

4. Atala. Irakasleak aldatzea.

44. artikulua. Irakasleak aldatzea.

1. Ikasleek instrumentu espezialitateko, kantuko edo ikasgai osagarriko irakasleak aldatzeko eskatu ahal izango dute, ikasturtea hasi aurretik.

2. Eskabideak ebazteko orduan, lehentasuna izango dute irakaslearen oniritziarekin egindako arrazoi pedagogikoetan oinarritutako eskaerak.

3. Antolaketa edota pedagogia arrazoiengatik, Musika Eskolak irakasle aldaketak egin ahal izango dizkie ikasleei, nahiz eta ez eskatu.

4. Musika Eskolak ez du eskabide horiek onartzeko betebeharririk izango, lanpostu hutsak egon arren.

VI. TITULUA

EGOITZA, MATERIALA ETA INSTRUMENTUAK ERABILTzea

1. atala. Instalazioak erabiltzea.

45. artikulua. Instalazioen erabilera.

1. Musika Eskolako instalazioen lehentasunezko erabilera irakaskuntza jarduerarena izango da, taldeen entseguak ere barnean hartuta.

2. Musika Eskolako langileek, ikasleek eta eskatzen duten herritarrek instalazio horiek erabili ahal izango dituzte arte diziplinak ikasteko eta entseguak egiteko. Debekatuta dago behar bezala baimenduta ez dagoen jarduerarik gauzatzea (eskola partikularrak, jarduera ekonomikoak, musikarekin lotuta ez dauden bilerak...).

3. Nolanahi ere, Musika Eskolak alde bakarretik aldatu ahal izango du ikasgelen erabilera ordutegia bere jarduera (klaseak, entseguak, entzunaldiak, etab.), behar bezala bideratuko dela bermatu ahal izateko, eta kalteturiko erabiltzaileak ez du inolako kalte ordainik jasoko horregatik.

4. Zuzendaritzak eskaerak ebatziko ditu eta beharreko neurriak hartuko ditu zerbitzuak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko. Era berean, lehentasunak zehaztuko ditu batera gertatzen diren jarduerak daudenean.

46. artikulua. Betebeharrak.

Honako konpromiso hauek hartu eta betebeharrak hauek izango dituzte Eskolako ikasgelen erabiltzaile guztiek:

1- Baimendutakoarekin bat datorren erabilera egokia egitea. Bereziki debekatzen da erretzea, jatea, edatea eta zikintzea, eta ikasgela baldintza onetan geratu beharko da, gerora behar bezala erabili ahal izateko.

2- Eskolako Administrazioari jakinarazi behar diote ikasgela edozein irregulartasun aurkitu badute.

3.Dagoen materiala gaizki erabiltzeagatik hondatzen bada, berritu edo eragindako kalteak ordaindu beharko dituzte.

47. artikulua. Ukatzeko arrazoiak.

Instalazioak erabiltzeko baimena ukatzeko arrazoi izango dira:

1-Ezarritako Tasak ez ordaintzea.

2-Ikasgelan edozein irregulartasun aurkituz gero ez jakinaraztea.

3-Utzitako ikasgelak baimendutakoa ez den beste erabilera baterako erabiltzea.

4.Musika Eskolako arauak ez errespetatzea.

5.Sexu arrazoigatik falta edo delitua egiteagatik zigor administratibo edo penala jaso izana.

48. artikulua. Eskolako langileak.

1-Musika Eskolako langileek instalazioak erabili ahal izango dituzte beren lana prestatzeko, ikasteko, arte jarduerak prestatzeko.

2-Era berean, langileak Musika Eskolako ohiko ordutegitik kanpo joan ahal izango dira instalazioetara, emango zaion txartel elektronikoa erabiliaz, ateak irekitzeko beharrezko baimenak izango dituen, hain zuzen ere. Indarrean dagoen segurtasun araudia bete beharko du.

49. artikulua. Ikasleek instalazioak erabiltzea ikasteko edo entseguak egiteko.

1-Ikasleek Musika Eskolako bakarkako ikasgelak erabili ahal izango dituzte ikasten ari diren instrumentua ikasteko. Era berean, ikasleek taldeen ikasgelak erabili ahal izango dituzte ikasgaiarekin loturiko talde entseguak egiteko. Ikasgelen erabilerak ez du matrikulaz gain inolako tasa gehigarrikerik eragingo.

Instalazioak Musika Eskolaren ordutegitik kanpo erabili behar dituzten ikasleei horretarako programatutako txartel elektronikoa eman ahal izango zaie.

50. artikulua. Herritarrek instalazioak eta instrumentuak erabiltzea ikasteko edo entseguak egiteko.

1.- Musika Eskolatik kanpoko pertsonak, bai ikasleekin bai beren kontura, instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute, musika ikasteko edo beste edozein helburutarako, araudi honetan xedatutakoa betez.

2.- Horretarako, Musika Eskolako zuzendaritzari zuzendutako eskabidea egin beharko da, eta honako hauek jasoko ditu:

a)Instalazioak erabiliko dituzten pertsonen identifikazioa, izena, abizenak, helbide elektronikoa eta telefonoa adieraziaz.

b)Arazoak, kalteak, etab. gertatuz gero, erantzulearen identifikazioa.

c)Instalazioak zertarako erabili nahi diren.

d)Araudi hau ezagutzen dela adieraztea eta onartzea.

3-Eskaerari gehienez ere astebeteko epean erantzungo zaio.

4-Erabilera baimendu ondoren, eskabidean adierazitako egoeren bat aldatzen bada, beste bat egin beharko da, eta instalazioak ezingo dira erabili azken hori ebatzi gabe.

51. artikulua. Instalazioak Udaleko beste Arloek edo beste Erakundeek erabiltzea.

1.- Udalaren beraren politika eta administrazio organoek instalazioak erabili ahal izango dituzte, Musika Eskolako zuzendaritzak baimena eman ondoren.

2.- Instalazioen erabilera ere erraztuko da, ezartzen diren baldintzetan, ikastaroak edo tailerrak egiteko edo Musika Eskolen Elkarteko (EHME), elkarteari lotutako musika eskoletako eta ikastetxeetako bilerak egiteko.

3-Salbuespen gisa, instalazioak erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie auzo elkarteei, kultura elkarteei eta merkatari elkarteei bilerak egiteko.

52. artikulua. Musika Eskolak beste instalazio batzuk erabiltzea.

Musika Eskolak, bere instalazioez gain, bere misioa gauzatzeko beharrezkoak direnak erabiliko ditu.

2. atala. Materiala eta instrumentuak erabiltzea Musika Eskolatik kanpo.

53. artikulua. Ikasleek, herritarrek edo beste erakunde batzuk materiala edo instrumentuak Musika Eskolatik kanpo erabiltzea.

1.- Instalazioak bezala, materiala eta instrumentuak erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie ikasleei, herritarrei edo beste erakunde batzuei, musika jardueretarako, hain zuzen ere.

2-Eskaera guztiak idatziz egin beharko dira, ezarritako tasak ordainduta. Matxuraren bat gertatuz gero, baimendua arduratuko da konponketaz eta bere kostuaz.

54. artikulua. Musika Eskolako langileek edo Udaleko sailek bere horretan, materiala eta instrumentuak Musika Eskolatik kanpo erabiltzea.

1.- Instalazioak bezala, materiala eta instrumentuak erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie Musika Eskolako langileei eta Udaleko beste Sailei, musika jardueretarako, hain zuzen ere.

2-Eskaera guztiak idatziz egin beharko dira eta bere garaian ezarritako protokoloak jarraitu beharko dira. Musika Eskolako langileek eta Udaleko Sailek ez dute tasarik ordaindu beharko. Matxuraren bat gertatuz gero, baimendua arduratuko da konponketaz eta bere kostuaz.”

b.- 2025. URTERAKO GLLK BANATZEKO UDAL IRIZPIDEAK ONARTZEA. 2025AESO0119

Ezagutzera eman da 2025-06-19ko Herritarrak batzordearen proposamena:

“AURREKARIAK

I. Euskal Sistemaren Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak, pertsonak baztertzeko arriskua prebenitzea, bazterkeria pertsonal, sozial eta laboreko egoerak arintzea, bizitza duinaren garapena bermatzea eta baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenak gizartean erabat sartzea sustatzea du helburu.

Euskal Sistemaren Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko osagaien artean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) daude.

II. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako Departamentuak urtero GLLetarako kontzeptu bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta Udal bakoitzarentzako aurrekontu-mugak ezartzen du.

III. Eskatzaileak erroldatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriko udalari dagokio gizarte-larrialdietarako laguntzak aitortzeko eta kontrolatzeko eskumena. (14/2022 Legea, abenduaren 22koa, 67, 2).

IV. Aginduak, 2025eko maiatzaren 7koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2025. urtean GLLetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko gehienez emango diren diru kopuruak zehazten dira, laguntza horietako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2025. urterako dagokion aurrekontu muga ezartzen dira.

2025. urterako, Eusko Jaurlaritzak 166.132,00€-ko aurrekontu-muga ezarri du Beasaingo Udalarentzako.

V.- 2024ko ekitaldirako Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako udalaren aurrekontu-partida 164.889,94€koa da. Behin Eusko Jaurlaritzak Beasaingoako ezarritako aurrekontu-muga ezagututa, Udal honen borondatea da GLLetarako aurrekontua 166.132,00€.eurora arte handitzea.

Hala ere, udalaren aurrekontu-partidaren zenbatekoa eskasa izan daiteke GLLen eskaeren kontzeptu guztiei erantzuteko. Horregatik, beharrezkoa da laguntza horiek emateko udal-irizpideak zehaztea.

OINARRI JURIDIKOAK

Aipatutakoak

PROPOSAMENA

Herritarrek Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: 2025. urterako GLLk banatzeko udal irizpideak onartzea.

Bigarren: Hartzen den erabakia GAO n argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, ondorengo udal irizpideak onartu dira 2025eko GLLk banatzeko:

GIZARTE LARRIALDITARAKO LAGUNTZAK (GLL) BANATZEKO UDAL IRIZPIDEAK 2025. URTEA

Aginduan, 2025eko maiatzaren 7koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, 2025. urtean Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko gehienez emango diren diru kopuruak zehazten dira, laguntza horietako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2025. urterako dagokion aurrekontu muga ezartzen dira.

Eskatzaileak erroldatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriko udalari dagokio gizarte-larrialdietarako laguntzak aitortzeko eta kontrolatzeko eskumena. (14/2022 Legea, abenduaren 22koa, 67, 2).

Horretarako, udalbatzak 2025-06-26an hartutako erabakiaren bidez, bakoitzak ordaindu beharreko kontzeptuak eta zenbatekoak (gehienekoak) honela finkatu dira, koadroan zerrendatzen den lehentasun-ordenaren arabera.

Kontzeptua/gastua	Eusko Jaurlaritza	Beasaingo Udala
<u>1.- Alogera</u>		
-Etxebizitza osoa	300€ hilean	300€ hilean
-Gela	150€ hilean	150€ hilean
<u>2.-Kredituen interes eta</u>		

<u>amortizazioa</u>	300€ hilean	300€ hilean
<u>3.- Energia</u>		
-Elkarbizitza unitate 1/	125€ hilean	50€ hilean
-Elkarbitiza unitate 2 /	62,50€ hilean	25€ hilean
<u>4.- Ohiko etxebizitaren erabilera eta mantenimendua</u>		
-Elkarbizitza unitate 1	900€ urtean	900€ urtean
-Elkarbitiza unitate 2	450€ urtean	450€ urtean
		Desglosea: 4.1-Komunitatea: 75€ - 37,50€ hilean (elkarbizitza unitatearen arabera) 4.2-Etxeko aseguruia: 100€ urtean/año 4.3-OHZ: 200€ urtean
<u>5.- Etxebizitza berri batean instalatzearekin lotutako ezhoiko gastuak</u>		
-Elkarbizitza unitate 1	1.800€ urtean	1.800€ urtean
-Elkarbitiza unitate 2	900€ urtean	900€ urtean
<u>6.- Oinarrizko premiak</u>	2.500€ urtean	2.500€ urtean Desglosea: 6.1-Egunerokotasuneko gastuak: 6.1.1.Elikadura 6.1.2. Beste batzuk 6.2-Betaurrekoak: Gehienez: 250€ pertsonako 6.3-Dentista: Gehienez: 600€ Familia unitate bakoitzeko
<u>7.- Altzariak eta elektrogailuak</u>		

-Elkarbizitza unitate 1	1.850€ urtean	1.850€ urtean
-Elkarbitiza unitate 2	925€ urtean	925€ urtean
		Desglosea: 7.1-Altzariak: 1.000€ urtean 7.2 -Elektrogailuak: 850€ urtean: -Garbigailua:300€ -Hozkailua: 400€ -Erauzgailua: 100€ -Labea: 250€ -Plaka: 150€ -Mikrouhina: 50€
<u>8.- Etxearen egokitzapen, konponketa eta instalazioak</u>		
-Elkarbizitza unitate 1	1.850€ urtean	1.850€ urtean
-Elkarbitiza unitate 2	925€ urtean	925€ urtean
<u>9.- Aurretiaz egindako zorpetzea</u>		
-Elkarbizitza unitate 1	3.000€ urtean	3.000€ urtean
-Elkarbitiza unitate 2	1.500€ urtean	1.500€ urtean

1etik 6-1)era zerrendatutako kontzeptuak/gastuak, 4.2 (etxe-asegurua) eta 4.3 (OHZ) izan ezik, lehentasunezkoak izango dira eta eskaerak aurkeztu ahala ebatziko dira.

Urtearen amaieran, aurrekontu-partidan kreditua egoten bada, udalak ordainduko ditu eskatutako gainerako kontzeptuak.

KONTZEPTU/GASTU BAKOITZA APLIKATZEKO ARAUAK

1. Alokairu gastuak

- Hilero gehienez 300€ ordainduko dira etxebizitza osoa alokatzeagatik, eta 150€ alokairua logela batengatik edo etxebizitzan maizter bat baino gehiago badago. Zenbateko horiek ezin

dute gainditu, inola ere, gastuaren zenbateko osoaren % 70 (etxebizitza osoa bada) edo % 80 (logela bateko alokairua edo koerrentamendua bada).

- Alokairu babestuko etxebizitzak direnean, edo BO Etxebizitzak, edo Udal titulartasunekoak, ez dira GLLak onartuko alokairu kontzepturako.

2. Etxebizitza erosteko eskatutako kredituen interes eta amortizazioek eragindako gastuak (hipoteka)

- Gizarte-larrialdi egoeran egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak sartzen dira soilik; 300 € gehienez hileroko, ezingo delarik kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren zenbatekoaren %70 gainditu.
- Kredituak ohiko etxebizitza ordaintzeko izan behar du. Salerosketa-eskiriturak eta kredituari dagokion dokumentazioa eskatuko dira.
- BO etxebizitzak baldin badira, GLLak ez dira onartuko kontzeptu honetarako.

3. Energia gastuak

- Energia gastu gisa kontutan hartuko dira: elektrizitatea, gasolioa, egurra, ikatza eta gasa (ur beroa barne).

Gizarte-bonuaren onuradun diren bizikidetza-unitateek ez dute GLLak jasoko elektrizitate gisa.

4.-Etxebizitzaren erabilerako eta mantentzeko gastuak

- Erabilerako eta mantenu gastu gisa kontutan hartuko dira: komunitateko gastuak, etxeko aseguruia eta OHZ.

Etxeko aseguruaren eta OHZren gastuak urte amaieran ordainduko dira.

5.- Etxebizitza berri batean instalatzearekin lotutako ezohiko gastuak

- Kontutan hartuko dira hala nola fidantza, horniduretan alta ematea, egokitzapena eta beste batzuk.

6.- Oinarrizko premien gastuak

- Ondorengo gastuei emango zaie lehentasuna:

6.1) Egunerokotasuneko gastuak:

6.1.1 Elikadura:

- 2 pertsona arte: 130 €hilean.
- 3 pertsona: 160 €/ hileko.
- 4 pertsona: 190 €/ hileko.
- 5 pertsona edo gehiago: 220 €/ hileko.

6.1.2 Beste gastu batzuk:

- Pertsona bakarra elkarbizitza unitatean: gehienez 500€/ urtean.
- Elkarbizitza unitatean 2 pertsona: gehienez 900€/urtean.

- Elkarbizitzan 3 pertsona edo gehiago: 1.200€/urtean.

6.2) Betaurrekoak erosteko gastuak: Gehienez 250€ familiako unitate pertsona bakoitzeko.

6.3) Dentistaren gastuak: Gehienez 600€ familia unitate bakoitzeko.

Ez dira hortzak ateratzeak eragindako gastuak sartzen, ezta panoramikak eta PADI programatik sartzen diren gastuak ere.

- Betaurrekoak erosteko eta dentistaren gastuetarako laguntzak tramitzatzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira.

7.- Altzari eta elektrogailuen gastuak

- Laguntza hauek tramitzatzeko bi aurrekontu desberdin aurkeztu beharko dira.
- Alokairuan dauden onuradunek altzari eta elektro gailuak erosteko laguntza eska dezakete, beti ere, alogerako kontratuaren arabera erosketak etxearen jabearen ez badagokio.

8.- Etxearen egokitzapen, konponketa eta oinarrizko instalazioen gastuak

- Kontzeptu honengatik Etxebideri eskatutako subentzioaren aldeko ebazpena dagoenean, subentzioaren kopurua gastutik deskontatuko da eta ateratzen den zenbatekoa GLLak eskatzeko gastu gisa kontuan hartzen dena izango da.
- Etxe tresna elektrikoaren konponketa: taularen 7. puntuan adierazitako etxe tresna elektrikoaren konponketaren gastua soilik sartuko da.

9. Aurretiaz egindako zorpetze-gastuak

- Taulan aipatutako 1etik 8 arteko kontzeptuengatik zorpetze gastuak kontuan hartuko dira beti ere, GLL eskaera egin aurretik sortu badira.

ARAU OROKORRAK

1.- Udaletik kanpo ateratzea

Laguntza hauen onuradunek udalerritik kanpo ateratzeko gehienez hilabete bat edukiko dute urtean zehar.

Alde egin baino lehen, Gizarte Ongizate azpisaileko bulegoetara joan beharko dute, absentziaren aldiaren berri emanez.

Udalerrirako itzulera dokumentu berri bat sinatuz berretsiko da.

Adierazitako jarraibideak betetzen ez badira, laguntza eten egingo da absentzia-denbora osoan.

2.- Onuradunen betebeharrak eta konpromezuak

- Laguntza hauen onuradunek eta bere familia unitatea osatzen dutenek, eskaeran adierazitako betebeharrak eta ekintzetarako konpromisoak bete beharko dituzte.

- GLLen onuradunek beren familia-unitatearen beharrak asetzeko erabiliko dituzte beren diru-sarrerak, eta ezin izango dituzte beren baliabide ekonomikoak erabili familia-unitatetik kanpoko pertsoneri laguntzeko.

3.- Laguntzak etetea

Laguntzak ondorengo kasuetan etengo dira:

- a) Ez aurkeztea jarraieko bi hitzorduetara justifikaziorik gabe.
- b) Eskaeran adierazitako betebeharrak edo/eta konpromisoak ez betetzea.
- c) Udalerritik kanpo urtean hilabete bat baina gehiago egotea.
- d) Dokumentazio faltsua aurkeztea.

Aipatutako kasuetan, laguntzak gutxienez hilabetez etengo dira, eta ez dira berriz hasiko etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen ez diren bitartean, d) idatz-zatian adierazitakoa izan ezik; kasu horretan, laguntza ukatu edo eten egingo da, eta ezingo da berriro eskatu 6 hilabete igaro arte.

a), b) eta c) ataletan adierazitakoa berrerortzeak GLLak gutxienez 3 hilabetez etetea ekarriko du.

4.- Ibilgailu motordunak

Bizikidetza unitateak ibilgailu motordun bat baino gehiago badu, GLLak ez dira tramitatuko eta eskatzen badira ukatu egingo dira.

5.- Udal zorrak ordaintzeko konpromezua

GLLen eskatzaileak zorrak baditu udal ogasunarekin, ezin izango da GLLetarako eskubidea aitortu, salbu eta udalaren zorra ordaintzeko konpromisoa hartzen badu, dela osorik dela zatika (gutxienez 60 €hilean).

6.- Eskaera epea

Eskaerak aurkezteko epea 2025-12-12arte izango da.

7. Gastuen justifikazioak

Diruz lagundutako gastuen fakturak, hilero 20 eta 23 arteko egunetan aurkeztu beharko dira.

c.- URA ETA ZABOR TASEN ETA UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ERABILTZEAGATIKO TARIFEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2025.URTEA. 2025UTLE0001

Ezagutzera eman da 2025-06-19ko Herritarrak batzordearen proposamena:

“AURRERAKINAK

1.- Beasaingo Udala laguntzen udal-politika bat aplikatzen ari da, karga ekonomikoa murrizteko edo baliogabetzeko:

- Ohiko etxebizitzako uraren eta zaborraren udal-tasak ordaintzea.

- Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatik tarifak ordaintzea.

II.-2025-05-16. Gizarte ongizate azpisaileko arduradun teknikoak egindako txostena.

III.- Aurrekontuko diru-izendapena badago:

-Kontusaila: 0220.480.231.00.01

-Zenbatekoa: 45.000€

-Helburua: "Udal tasen inguruko laguntzak".

LEGERI APLIKAGARRIA

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

-Euskal Herriko 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

-Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorra.

-Diru-laguntzak arautzen dituen udal-araua.

-Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025.

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik: Ura eta zabor tasen arloan eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatik tarifen arloan laguntzak emateko oinarriak onartzea.

Bigarren: Alkateari dagokion deialdia egitea, oinarriak argitaratuz."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Guk eskatu nahi dugu proposamena bitan banatzea eta puntu bakoitza aparte bozkatzea."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bai Hasier Agirrek Gobernu Batzordean aipatu du eta horrela egingo dugu. Lehenengo bozkatuko dugu, ur eta zaborren tasetan laguntzak eta gero kiroldegia erabiltzeagatik tarifen laguntzak"

Ur eta zaborren tasetan laguntzak ematea oinarrietan araututa dauden bezala bozkatu da eta aho batez onartu da proposamena.

Kiroldegia erabiltzeagatik tarifen laguntzak ematea oinarrietan araututa dauden bezala.

Bozkatu aurretik, ondorengoak aipatu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Guretzat laguntza horiek ez dira nahikoak. Prezioen merketze bat egon beharko litzateke eta irabazien arabera tarifakazioa. Ez da nahikoa ezta ere, laguntza horiek udaran bakarrik ematea. Gure botoa ezezkoa izango da."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Udal honek daraman politika da oinarritzko zerbitzuengatik kobratzen diren tasa edo tarifetan dirulaguntzak ematea. Kiroldegia dagokionez, irizten dugu

udan eta gehienbat gaztetxoei begira, oinarritzko zerbitzua bilakatzen dela kanpo igerilekua, baina urte guztirako ez dugu horrela ikusten. Bakarrik ekainetik iraila bitarte.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak:12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena eta bide batez ondorengo oinarriak onartu dira:

“URA ETA ZABOR TASEN ETA UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUEN ERABILTZEAGATIKO TARIFEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2025. URTEA

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.

Abenduaren 5eko, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak 6. artikuluan adierazten duenez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, eta funtsezko helburuak honako hauek dira:

a) Pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

b)Babesgabezia egoerek eragiten dituzten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

c)Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

d) Larrialdi egoerek pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurre hartu eta erantzutea.

Lehen aipatutako helburuak betetzen laguntzeko, ura eta zabor tasen eta udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatiko tarifen arloan laguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, eta aurrerago adieraziko dira, honako hauek kontuan hartuta:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

-Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).

- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (1. helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.2 ildoak: baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen laguntzea).

Laguntza horiek, azken hamarkadetan onartu eta eman direnak, lehen aipatutako helburuak lortzen laguntzen dute, bai eta baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonak egoera ekonomiko prekarioago batera igaro ez daitezen ere.

1. XEDEA

Oinarri hauen helburua zera da, udalerriko giza talderik behartsuenentzat, karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatzeko balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea, hau da:

- Ohiko etxebizitzako ura eta zabor-tasen ordainketa.
- Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatik tarifen ordainketa, ekainetik irailera soilik, biak barne.

Laguntzak aurreko ekitaldiko tasen/tarifen ordainketari dagozkion zenbatekoen gainean aplikatuko dira.

2. AURREKONTUA

1 0220.480.231.00.01 aurrekontuko kontu sailean 45.000 euroko kreditua esleitu da ura eta zabor tasen eta udal kiroldegia erabiltzeagatik tarifen arloan laguntzak emateko.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa (45.000€) handitu ahal izango da aldaketaren zenbatekoa dela eta eskumena esleitura duen organoaren aldetik baina beti ere aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik. Horrek ez du beste deialdirik ekarriko.

3. ONURADUNAK

Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradunak izateko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Eskatzailea ohiko etxebizitzan bizi eta bertan erroldatuta egotea, laguntzak eskatzen diren egunerako (2024).
- Eskatzailearen bizikidetz-unitateak ez du gainditu behar, aurreko ekitaldian, 4.3 atalean ezarritako urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga.

4. DIRU-LAGUNTZAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK ETA HORIEN ZENBATEKOA

4.1 Tasen arloko laguntzak lortzeko

1. Egindako gastuaren % 100a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga sartzen badira. Gehieneko zenbatekoa 600 €.

2. Egindako gastuaren % 75a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gainditzen ez badute. Gehieneko zenbatekoa: 500 €.

3. Egindako gastuaren % 50a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1,5 eta 2 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gainditzen ez badute. Gehieneko zenbatekoa: 400€

4. Bizikidetz-unitatetzat hartuko dira etxebizitzan erroldatutako pertsona guztiak, laguntzak eskatzen diren egunerako (2024).

5. Etxebizitza bakoitzeko eskaera bakarra egin ahal izango da.

4.2 Udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatik tarifa arloko laguntzak jasotzeko

1. Egindako gastuaren % 80a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren eta ondarearen muga sartzen badira.

2. Egindako gastuaren % 50a jasoko dute elkarbizitza unitateek, baldin eta urteko diru-sarrera garbiak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baremoko urteko diru-sarreraren 1 eta 1,5 muga artean sartzen badira eta ondarearen muga gainditzen ez badute.

3.- Ekainetik irailera bitarteko tarifak baino ez dira diruz lagunduko.

4.- Bizikidetza-unitatea zehazteko, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 25. eta 26. Artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

4.3 Urteko dirusarrerak eta ondarearen muga

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen urteko diru-sarreraren muga 2024. urtea, elkarbizitza unitateko neurriaren arabera, ondorengoa da:

- 1 pertsona: 15.132,24 €
- 2 pertsona: 20.176,38€
- 3 edo gehiago: 23.202,90 €

Laguntza hauetarako ezarritako ondarearen muga, bizikidetza-unitatearen tamainaren arabera, honako hau da:

- 1 pertsona: 20.000€
- 2 pertsona: 25.000€
- 3 edo gehiago: 30.000€

5. DIRU-SARREREN ETA ONDAREAREN ZENBAKETA

Eskatzaileak eta bere elkarbizitza unitateko kideak 2024. ekitaldi ekonomikoan izandako urteko diru-sarrera garbiak zenbatuko dira.

Kontutan hartuko dira:

a)Urtean lortutako diru-sarrera garbiak: laneko etekinak, pentsioak, prestazioak edota laguntzak.

b) Ondasun higikorra.

Elkarbizitza unitateak ondasun higiezinak (2. Etxebizitza edo lokalak) %100aren jabetzan baditu, ez ditu laguntza hauek jasoko. Ohizko etxebizitza ez da kontutan hartzen.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalari jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inolaz ere gain finantzazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera diru-laguntza moduan emandako kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.

7. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak aurkeztuko dira:

Aurrez aurre

iGunean: jendeaurreko ordutegia

Posta arruntaren bide

Telematikoki: www.beasain.eus

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izango da:

- a) Eskatera orria, behar bezala beteta eta sinatuta (I eranskina).
- b) NANik edo AIZrik ez badu, eskatzailearen pasaportearen eta berarekin erroldatuta eta elkarbizitza unitatea osatzen dutenena. Kasu horretan, horien guztien egoera ekonomikoa egiaztatu beharko da.
- c) Zabor-tasa ordaindu izanaren egiaztakia, etxebizitzaren jabea ez izanik tasa ordaindu duen kasuetan bakarrik.
- d) Ur tasa ordaindua izan den ordainakia. Fakturazioa eraikinekoa denean, eraikineko fakturak eta eskatzaileari dagokion kontsumo-zatiaren akta (II eranskina).
- e) Udal kiroldegiko zerbitzuen erabilera-ordainakia ordainakia (ekaina-iraila).

8. DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboaren bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatze eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboaren, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: NA-AIZ, datuak eta egiaztapena.

b) Gipuzkoako Foru Aldundia:

- PFEZ
- Kontuak
- Ondasun higiezinak

- Ondarea

-Foru Ogasunarekiko zerga- betebeharrak egunean izatea.

c) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala: Gizarte-prestazio publikoak.

4. Eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

5.Oinarri hauetan jasotako laguntzen eskatzailea Beasaingo Udalak aurreko ekitaldian emandako gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun izan bada, eskaera-orria eta laguntzaren xede diren tasak/tarifak ordaindu izanaren egiaztatzea baino ez ditu aurkeztu beharko.

6. Udalak egiaztatzen badu eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe

9. ESKAERA EGITEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOOn argitaratzen direnean, eskaerak aurkezteko epea irekiko da 2025eko irailaren 1etik 30era.

Ezarritako epetik kanpo egindako eskaera guztiak ukatuko dira.

10. AZTERKETA ETA EBAZPENA

Udaleko Gizarte Ongizate azpi arloak laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko ditu eta Alkateak ebatziko ditu. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 3 hilabeteetan, pertsona interesatuei hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie.

11. UDAL ZORRAREN KONPENTSAZIOA

Laguntza hauen onuraduna Udal Ogasunetik zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

12. ORDAINTZEKO MODUA

Dagokion laguntza hiru hilabeteko epean ordainduko da, ebazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita.

13.- ARAU-HAUSTEAK

Datuak ezkutatzeak edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta pertsona onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

14.- DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

15.- APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa,

Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearena aplikatuko da.

16.- EBAZPENA ETA HELEGITEAK

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.

5- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- Udalaz gaindiko administrazioek esku hartzen duten obrak egiteko udal-ekarpenak: Garingo saneamendua egiteko obrei buruzko 5. ziurtagiria (3. Eskatera-ordainketa). 2024HIBO0054

Alkate andreak (EAJ-PNV): "5. obra-ziurtagiriaren kopurua, 101.482 €koa da. Bere garaian sinatutako hitzarmenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta Beasaingo udalaren artean banatu behar da. Horren arabera, Udalari 73.111,65 € (BEZ barne), ordaintzea tokatzen zaio.

Aho batez onartu da, Garingo saneamendua egiteko obren 5. ziurtagiria (2. ordainketa-eskaria), 73.111,65 €koa (BEZ barne).

b.- Obra-ziurtagiriak: San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko obrei buruzko, 7. Ziurtagiria. 2023PROB0014

Aho batez onartu da, "**San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obrei buruzko**" 7. obra-ziurtagiria, 109.211,99 €koa (BEZ barne).

6.- MOZIOA: Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak-ek aurkeztutako mozioa: Urola Garaia, Goierri eta Donostia arteko hiriarteko autobusen G007 linea berriaren aldekoa.

Alkatea andreak, aldez aurretik hitza emanda, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoek mozioa irakurri dute:

Eva Alvarez Atanes andreak:

"EN DEFENSA DE LA NUEVA LINEA G007 DE AUTOBUSES INTERURBANOS ENTRE UROLA GARAIA, GOIERRI Y DONOSTIA

El pasado 28 de abril entró en funcionamiento la nueva línea de autobuses G007, que conecta diariamente ALTO UROLA, GOIERRI con Donostia y viceversa. .

Esta línea responde a Una necesidad de comunicación accesible, eficiente, sostenible y vertebradora de nuestra comarca con la capital de Gipuzkoa y es un ejemplo de colaboración institucional y escucha active, atendiendo a las necesidades reales de la ciudadanía.

Hoy, Esta línea, es Una realidad gracias al trabajo y la determinación del Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio, liderado por la diputada Azahara Domínguez.

Esta línea surge tras una primera reunión planteada por la diputada foral de movilidad Azahara Domínguez el pasado 5 de noviembre de 2024 en la nos presentó el borrador del proyecto inicial de la nueva línea GOO7.

Posteriormente se planteó la conexión de nuestros vecinos de Legazpi CON ESTA LÍNEA.

Fruto de ese diálogo específico y del análisis técnico posterior, se tomó la decisión de modificar el horario inicial de salida previsto a las en puerto y retrasarlo a las y cuarto, con el objetivo de permitir el transbordo con Legazpi. Esta modificación ejemplifica cómo la colaboración entre instituciones permite afinar los servicios públicos.

En sus primeras semanas de funcionamiento, la acogida ciudadana ha sido muy positiva.

El servicio de las 07:15 h registra ya cerca de 100 personas usuarias diarias, lo que confirma la necesidad real de este servicio. Ante la elevada demanda registrada en los primeros días, se tomó la decisión de reforzar esta expedición con un segundo autobús, medida que se mantiene actualmente para garantizar la calidad del servicio.

Concretamente los viajes de nuestros vecinos/as de Beasain suponen el 24,32% del total de viajes. Desde el 28 de abril hay un total de 19322 viajes, de entre los usuarios de Beasain, fundamentalmente son estudiantes y trabajadoras/es, lo que ejemplariza la importancia de esta línea para Beasain.

Desde el lunes 26 de mayo, Legazpi ha sido incluida Como puerto de salida de las dos primeras expediciones y como llegada de las dos últimas, ampliando así la cobertura del servicio y respondiendo a la demanda de mejora de la conectividad en la comarca. Esta modificación es un ejemplo de adaptación gil a las necesidades reales del territorial, basada en criterios técnicos y en diálogo institucional.

La implantación de un nuevo servicio de transporte requiere siempre un periodo de evaluación técnica, ajuste progresivo y mejora continua. ,

Estos cambios reflejan el compromiso de este Departamento con una movilidad pensada para las personas, y es un claro ejemplo de cómo se escuchan las necesidades del territorio y se adoptan soluciones técnicas y meditadas para mejorar La coordinación entre líneas y garantizar un servicio mas accesible para todas y todos. En esta misma línea de trabajo colaborativo, en la asamblea de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATTG) celebrada el pasado 5 de mayo de 2025, se acordó convocar la Comisión ITG para estudiar la posible gratuidad de los dobles transbordos, una medida propuesta por la Diputada Foral de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio.

Esta moción se fundamenta en un principio político claro y compartido: la apuesta decidida por el trabajo colaborativo y la escucha activa, siempre con un objetivo concreto y exigente: no quedarse en las palabras, Sino materializar soluciones reales que transformen el día a día de la ciudadanía. De las palabras a los hechos, con rigor técnico, pero con eficiencia y agilidad.

La línea GOO7 es un ejemplo claro de esa forma de trabajar: una iniciativa que nace del diálogo con las y los guipuzcoanos, de la identificación precisa de una necesidad social y de la voluntad y política de responder con soluciones eficaces.

La cooperación entre el departamento de movilidad, turismo y ordenación del territorio y el ayuntamiento de Beasain es prueba de que, cuando las instituciones colaboran desde la cercanía y el compromiso con el territorio, los avances no solo se proyectan: se hacen realidad. La movilidad pública mejora no por casualidad, ni por sostener pancartas, Sino por un trabajo institucional que escucha, sí, pero sobre todo cumple y materializa.

Desde el PSE-EE de Beasain, consideramos que esta nueva línea representa un paso firme hacia una movilidad más sostenible, vertebradora y equilibrada territorialmente. También entendemos que las decisiones sobre horarios, frecuencias y recorridos deben tomarse con criterios técnicos, basados en datos de uso y capacidad operativa, no sobre percepciones previas ni electoralismos.

Por ello, es importante actuar con responsabilidad institucional y mirada de medio y largo plazo, evitando valoraciones prematuras que puedan desvirtuar el objetivo principal: consolidar y mejorar este servicio en beneficio de toda la ciudadanía.”

Angel Redondo Fernández jaunak:

MOZIOA

1. Beasaingo Udalak begi onez ikusten du Urola Garaia eta Goierri Donostiarekin eta alderantziz lotzen dituen G007 hiriarteko Linea martxan jartzea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzeko prest dagoela. adierazi du, Linea hori ebaluatu eta hobetzeko.

2. Beasaingo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio udal honekin batera azter ditzala G007 hiriarteko linearen erabiltzaileei buruzko datu objektiboak. Gainera, doako garraio aldaketak bermatzeko eta garraio publikoko sistema justuagoa eta irisgarriagoa eraikitzeke proposamen guztiak babestuko ditu.

3. Beasaingo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentura era mango du mozio hau.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek jaso dituzte:

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Mozioaren hiru puntuekin orokorrean ados gaude. Oso positiboa iruditzen zaigu, G007 linea berri hau. Aldiz, ez gatoz guztiz ados mozioaren azalpenetan aipatzen diren arrazoiekin. Autobusa hartu dudanean, oso jende gutxiarekin joatea tokatu zait. Garrantzitsua izango da ikerketa bat egitea jakiteko zein puntuetaraino den beharrezkoa bus-zerbitzua izatea trena dagoenean. Doakotasunarekin ados et etzute-prozesuarekin eta kontuan izatearekin ere ados. Alde bozkatuko dugu.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “Mozioan orokorkeri dezente daude. Horregatik atzo bertan luzatu nion alderdi sozialistari Gipuzkoako Batzar Nagusietan EH, Bilduk egindako bi proposamen. Ez dute bidezkoa ikusi mozioan txertatzea, baina esango ditut zeintzuk izan diren:

1.- Sei hilabeteko epe barruan Urola Garai eta Goierri eskuzaintzetako industrialdearekin, Errekaldeko Eusko treneko linearekin, Galarretarekin, Miramon-eko parke teknologikoarekin eta Donostiako ospitalarekin modu nodal edo zuzenean lotuko dituen Legazpi-Donostia linea berria sortzea.

2.- Zerbitzu berri honen zein jadanik martxan dagoen G007aren kalitate estandarrak maila gorenekoak izatea, eguneko puntako orduetan Aldundiak zerbitzuaren ordubeteko maiztasunarekin indartu ditzala eta helburu berdinarekin autobus gehigarriak erabil ditzala.

Iruditzen zaigu autokonplazentzia dagoela mozio honetan eta baita ere analisi batzuk falta direla. Abiapuntuarekin ez gaude oso ados. Beasainen ezagutu genuen kooperatiba bat sortu zela gabezia honi erantzuteko eta herritarren presioa ere bazegoen. Abiapuntua lehenagotik dator. Autobus hau egotearen arrazoia trenaren egungo funtzionamendu eskasa da.

Jasangarriagoa da trenbide-sarea egotea, baina ikusita autobus honen tarifak trenaren erabilpena jaisteko arriskua dago. Linea positiboa da baina mozioarekin hain ados ez gaude. Abstenitu egingo gara.”

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Mozioan jartzen du 2024-11-05an egin zela lehenengo bilera, baina hori horrela ez zen izan. Foru Diputatuak deitutako lehenengo bilera bat egon zen, baina hori baino lehen gu geuk beasaingarren izenean mugikortasun diputatuarekin harremanetan

jarriak ginen ekainetik hasita. Mugimendu bat bazegoen autobusa jartzeko eskatuz ikasle eta lanera zihoazen langileen aldetik. Azaroa baino lehen Azahara diputatua hona etortzeko aukera izan genuen eta esplikatu genion “partecar” aplikazioak ematen dituen aukerak. Aplikazio hori erabiltzen dutenen artean somatzen da lehentasuna dutela Donostiarako ibilbideak. Gero Arrasate eta Oñati. Hor ere garraio ikuspegi aldetik, badugu gabezia bat. Datuak pasa genituen, departamentuak aintzakotzat hartu zituen eta deitu gintuen azaroak 5erako bilera batetara Zumarragan. Han esan ziguten zirriborro bat aurkeztuko zenigutela eta horren baitan aurrerago izango genuela Beasaindik atera eta Beasainera iristen den linea bat. Hori horrela eskatu izan dioguna da, behin udara pasa eta normaltasunean hasten garenean, doakotasuna ezartzeko eta beha diren errefortzuak egiteko. Mozioaren alde egiten dugu, baina eskatzen duguna da, bertan aipatzen den lehen bilera hori testutik kentzea.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “De acuerdo con lo dicho por el compañero de Elkarrekin Podemos. Con el uso de la línea es como se ven las necesidades y se pueden realizar propuestas de mejora y por ello los horarios fueron modificados en función de la línea.

A EH Bildu le dijimos la razón por la que no aceptábamos su propuesta de introducir en la moción las dos reseñas citadas. El plazo de seis meses para implantar una nueva línea es corto y técnicamente imposible. Se ha debatido en Juntas y no lo vamos a repetir. Es verdad que el recorrido de todo esto viene desde antes y desde Diputación, ante las obras del tren y el mal funcionamiento de la línea, se recogieron bastantes quejas y la proposición de implantar esta nueva línea se ha adoptado, no solo por las necesidades de Beasain, sino también por otras

Estamos de acuerdo con la modificación del texto de la moción.”

Gaia behar adina eztabaidatuta, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabeak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da mozioa.

7.- BERRI EMATEA:

- 2025eko maiatzaren 25etik ekainaren 22ra emandako Ebazpenak.
- 2025eko maiatzaren 25etik ekainaren 22ra emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

Ezagutzero eman dira aipatutako Ebazpenak.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

ESKERRAK EMATEA

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Han pasado las fiestas de Beasain y quisiera agradecer a todos los técnicos y agentes que han tomado parte en la organización de las mismas y en su consecución y en especial a la policía municipal. Sin embargo, nos encontramos preocupados por situaciones de peligrosidad y violencia acaecidas en Beasain: Denuncias de roturas de lunas en el barrio de la Portería.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gizartea eraldatuz doa eta segurtasun arazoak gure artean lehentasuna hartzen ari dira, bai hemen eta bai inguruan. Lapurretak daudenean saiatzen gara identifikatzen eta epaitegira bidaltzen, baina beti ez da posible izaten. Nik ere eskertu egin nahi nuke gure udaltzaingoak egin duen lana. Gauetan eta jaietan lana egitea zailagoa bihurtzen ari da eta duela urte batzuk ezagutzen ez ziren hainbat egoera kudeatu izan behar dituzte. Eskerrak beraientzat1.”

GAZA

Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Aurreko plenoan aurrera ateraz zen Gazan inguruko mozioan inguruaren harira, esan egoeran bilakaera nabarmena egon dela eta mozioa aurkeztu zuten bi alderdiei galdetu nahi nieke balorazioen bat duten izandako bilakaeraren inguruan.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Los acuerdos que se están llevando a cabo son positivos. Todos sabemos que la situación en Palestina es una situación problemática, pero con el genocidio actual es una ignominia. El Gobierno de España tomo una serie de decisiones en relación con contratos existentes y cualquier acuerdo que se lleve a cabo para meter presión estamos de acuerdo.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Gu udal ordezkariak gara eta egia da mundu mailako arazoa dela eta tamalez denboran jarraituko duena. Azken egunetan jakin izan dugu hainbat erabaki hartu izan direla Gobernuaren aldetik baina balorazio bat egin baino, uztailean mozio bat aurkeztuko da eta horren inguruan lasaiago hitz egiteko modua izango dugula.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hemeretziak eta hamar minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.